

## Iturbe Txindokiko Kilometro Bertikaleko txapeldun

Maiatzaren 19an jokatu zan Txindokiko Kilometro Bertikala, Euskal Herriko Txapelketarako zein Koparako puntuagarria zana eta Onditz Iturbe mendi lasterkari igorreztarrek erraz irabazi eban 3,6 km eta 980 metroko goranzko desnibela eukan proba, bigarrenari lau minutu aterata. Leire Elola tolosarrak eta Claudia Sarrate kataluniarrak egin eben bigarren eta hirugarren. Gizonezkoetan, Aitor Ugarte aramaiotarra izan zan irabazlea. **15. orrialdea**



# Igorreko jaiak, lehenengoak, ate joka

Hilaren 6an, barikuan, hasiko dira Igorreko jaiak eta 15era arte luzatuko dira. Jolasak, lehiaketak, eta kontzertuak dagoz, besteak beste, egitarauan.

**B**atez be, bariku eta zapatu gauetan egongo dira kontzertuak: Sus-trai Berriak, Kaos Etoliko, Merina Gris, Altxa Porrue, Sukena, Sune, Zirkinik Bez eta Zilibito Records dira Igorreko gauak animauko dabezan taldeak. DJek, kalejirek, abesbatzen kontzertuek, musika eskolen emonaldiek, karaokeak, rantxerek eta erromeriek osotuten dabe jaietako musika eskaintzea.

Jaiei hasikerea emoteko txupina Maratuk botako dau bagilaren 6an, 19:00etan, baina jai giroa lehenagotik egongo da hasita. Izan be, 17:00etan, Saharauis en Arratia alkarteak egindako jakien dastaketea eta umeentzako jolasak egongo dira Goiko Plazan. Ostean Arantzartek jantzak egingo ditu eta argazki herrikoia aterako da udaletxe bakoitik.

Horren ostean, hamar egunetan, jaiak izango da nagusi. **8. orrialdea**



### ARRATIA

## Enara Gallastegik irabazi dau Bizkaiko Eskolarteko Txapelketea

Finalera lau arratiar heldu ziran. Buruz burukoan, Enara Gallastegi dimoztarra eta Ekhi Zuluaga igorreztarra neurtu ziran, Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketako finalerako pasea lortuz. Idatzizkoan Ekain Menika arantzazutarrak bigarren saria irabazi eban. **17. orrialdea**

### ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Euskaraldiaren lehen balorazinoa

Euskaraldian 450 herrik hartu dabe parte, 7.500 entidadetik gora, eta ia 135.000 lagunek izena emon eben ahobizi edo belarriprest izateko. Euskaraldiaren Koordinazio Mahaiak ariketearen lehen balorazinoa emon eban jakitera maiatzaren 26an eta balorazino sakonagoa egiteko lanean dihardu. **6. orrialdea**

### ARRATIA/ZEBERIO

## Alegazinoak egin daitezke parke eolikoaren kontra

FeroscaWind enpresek, Mandoian, 200 metro altuerako sei aerosorgailu eta euren lotutako azpiegiturak eregiteko proiektua dauka. Zeberioko Mandoian Eolikorik Ez plataformeak, Zeberioko Udalak, Zeberio eta Arratiako hainbat mendi talde, alkarte eta norbanakoek alegazinoak aurkeztuko ditue. Mobilizazioak be egiten dabiz. Zeberio eta Arantzazuko herritarrek konzentrazioa egin eben Mandoiako tontorrean bagilaren 1ean eta Mandoian Eolikorik Ez plataformeak *Kritika egungo eredu berriztagarriari eta alternatibak* izeneko berbaldia antolatu dau hilaren 4rako. **7. orrialdea**

**imb**  
hagin klinika  
clínica dental

Ibone B. Martinez Barrenetxea

Hortz-higienista edo klinika laguntzailea behar da 18 urte baino gehiagoko garapena dauan Lemoako Hortz Klinikako parte izateko. Lanaldi osoa, jarraitua edo zatitua asteko egunaren arabera. Baldintza eta lan giro onak. Era guztietako hortz tratamenduak eta odontologia holistikoa egiten doguz.

[imblemoa@yahoo.es](mailto:imblemoa@yahoo.es) · 639 376 875 · Whatsappik ez

Estaziñoa, 1  
48330 LEMOA · Bizkaia ODONTOLOGIA BIOLOGIKOA

Igorreko jai zoriontsuak opa deutsueguz!

**RENAULT**

**TALLERES ELEZARRE**  
Lehendakari Agirre, 22 · 94 631 56 34 · IGORRE  
[elezarre@telefonica.net](mailto:elezarre@telefonica.net)



# Literatura txokoa

## LA MONTAÑA MÁGICA

Olga Tokarczuk 2018ko Nobel saridunaren *Tierra de empuzas* (2025) gomendatu deuste. *Tierra de empuzas*, oin dala 100 urte Thomas Mannek idatzitako *La montaña mágica* (1924) eleberrian oinarrituten da gaur egungo ikuspegi batetik idatzita. Thomas Mannek be jaso eban Nobel saria 1929an. Mende bateko tarte daukie beraz, paralelismo handiko nobela bi honeek; horregaitik, *Tierra de empuzas* irakurri aurretik, *La montaña mágica* barriro irakurtea ebatzi neban.

Nobedadeez gainera, gustetan jata klasikoak edo bere momentuan zezerengaitik liluratu egin ninduen liburuak, bizitzaren beste momentu baten berriakurtea.

Badagoz liburuak, 20, 40 eta 60 urtegaz irakurri dodazanak, eta berriakurketa baktotxean desbardina da liburu, ni neu, irakurlea, desbardina nazalako. Askotan irakurri dodan liburuetak bat ez da *La montaña mágica*. Behin bakarrik irakurri neban, 30 urteren bueltan, eta oin nabil barriro irakurten. Eta oso gustura.

*La montaña mágica* Hans Castorp-en Suitzako Alpeetako erietxe baten egindako egonaldia kontetan dau. XX. mendeko hasieran dago girotuta kontakizuna, Lehenengo Mundu Gerrearen aurreko urteetan. Castorp, bere lehengusua bisitetan doa Bergenhof erietxera, bertan hiru aste egoteko asmoagaz, baina han, gaixotu eta egonaldia luzea

egingo dau.

Lan honetan, Thomas Mann-ek gaixotasunaz, denporeaz, heriotzeaz eta maitasunaz hausnartzen dau, personajeen barriketaldi edo pentsamentuak horretarako erabiliz. Astiro irakurteko liburu da. Denporea distorsionau egiten dala Bergenhof erietxean, esaten jaku behin eta barriro, eta irakurleak be sumatzen dau distorsino hori liburu irakurtean. Astiro eta geldiuneak eginda irakurtekoa da; izan be, gai unibersal horreen personajeen eretxiak irakurrita, norberaren eretxi eta pentsamentuak birpasetako tentazioari ezin izaten jako eutsi. Niri, normalean, irakurrialdi luzeak egitea gustetan jata, 200 edo 250 orrialde jarraian irakurtea; baina *La montaña mágica*

gicak beste modu baten irakurtea eskatzen dau, gitxiago irakurri takada baktotxean, pentsetako geldiuneak eginez, sasoi eta leku haretako denporearen tenorean.

Sasoi haretako Europako gizartea be oso ondo deskribiduten da liburuan, eta orduko gizartea eta oingoa alderatzean, zer aldatu dan eta zer ez ikustea, sano interesgarria da; zer dan sasoi kontua eta zer gizakion unibersala bereiztuteko. Eta kurioa be da ikustea erietxe "moderno" haretan egiten zan medikuntza.

Liburu honetako edizino ugari dagoz, azkena Debolsillok 2024an ateratakoa da mendeurrenaren atxakian. Nik, etxean neukan Plaza y Janes-en 1986ko edizinoan irakurri dot. Ez dakit euskeraz dagoan, baina nik ez dot topau.

Bea Azpiri Rementería



Thomas Mann

La montaña mágica

Debolsillo, 1924an publikatua

1.056 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

### Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

### Bagilaren 2tik 8ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano. (31-06)

### Bagilaren 9tik 15ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano. (7-13)

### Bagilaren 16tik 22ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano. (14-20)  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

### Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

### Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

### Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /  
mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

### Gorbeialde Landa

### Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

### Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

### Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

### Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunetan ordu 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era ordu.

3911 linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara ordu. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era ordu.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era ordu. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era ordu. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era ordu.

3912 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era ordu. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era ordu.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara ordu. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra ordu.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era ordu.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era ordu. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Ubideitik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

\* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era ordu.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era ordu.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara ordu. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era ordu. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10\*, 11:00; 11:45\*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45\*, 19:20.

\*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11 Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

### Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30etan. Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea. Tel.: 94 673 90 13. E-posta: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus). Webgunea: [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus). Zuzendaria eta publizitate arduraduna: Iñigo Iruarizaga. Tel.: 649 979 115. E-posta: [inigoirua@begitu.eus](mailto:inigoirua@begitu.eus). Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Tel.: 649 979 112. E-posta: [beazpiri@begitu.eus](mailto:beazpiri@begitu.eus). Erredakzino arduraduna: Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. Webgunearen arduraduna: Asier Abrisketa. Tel.: 626 647 923. E-posta: [asierabrisketa@begitu.eus](mailto:asierabrisketa@begitu.eus). Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. Banaketea: Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). Tiradea: 7.300 ale. Inprimategia: Bidasoa inprimatzeko zentroa. Facebook: [Begitu Aldizkaria](https://www.facebook.com/BegituEus). Twitter: [@BegituEus](https://twitter.com/BegituEus). Instagram: [@begitu.eus](https://www.instagram.com/begitu.eus)

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearnak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatzuz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatze.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

### Babesleak:



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, esker-rironak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea  
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:  
[begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (LXIX).  
Kale berbakunea sustatu guran

KARLISTADAK (VI)

- Nor **zoan** Zumalakarregi?
- Euskal jeneral eta estratega galanta.
- Euskal gudarosteak burruka gehienak irabazten **joazan** beragaz.
- Herria sinistuta **yegoan** berari esker irabaziko **joala** Madrileko ejerzitoaren kontrako gudua.
- Baina Bilboko setioan bala batek bere izterra urrutu egin **joan**.
- Eta orduan petrikilo batek osatu **joan** baina itxura baten urrutu bat baino ez **zoana** zornaz bete **zoan** eta hiru egunean hil egin **zoan**.
- Morala galdu, gudua galdu...

ERETXIA

Euskerea eta jauzi kuantikoa

O in dala urte batzuk, Sir Roger Penrose Nobel saridunak atera eban kontzientziari buruzko teoria barri bat. Horren arabera, kontzientzia, prozesu kuantikoa zan. Sir Roger-ek esperimentu batzuk egin eban non erantzuleari ezusteko oso galdera zailak egiten jakozan. Eta egiaztatu eban gehienetan erantzuna segiduan hasten zala, pentsetako denporea izan barrik. Hor baegoala zeozer arraroa pentsau eta hurrengoak asmatu eban: Gogoak "jauzi kuantikoa" erabilten ebala segundu batzuk aurreratzen denporan. Zeozelan, gogoak baekian zein izango zan galdera, galdera bera adierazo baino lehen. Horrexegaitik galdera esatean, entzulea hasten zan erantzuten segiduan, argudiatu eban. Komunitade zientifikoak ez eban ondo hartu hau guztiau eta espekulatibo eta ez-zientifikotzat hartu eban.

Urte batzuk pasauta Geneva-ko partikula azeleragailuan partikula batzuk talka egin baino segundu batzuk lehenago beste partikula batzuk agertzen zirala erreparau eben. Harrigarria bazan be, partikula horreek, irudianez, ezerretik, hutsetik etozan. Modu magikoan, partikularik ez egoan lekuan partikulak agertzen ziran bat-batean. Nondik etozan? Zientifikoek, beste azalpen bat topau ezean, geroalditik etozala argudiatu eben. Talkak, hain prozesu gogorak sortu arazoten ebezan ze "jauzi kuantiko bat" gertatzen zan. Segundo batzuren denpora distorsinoa agertzen zan. Holan, jauzi kuantikoa benetan existiduten zala egiaztatuta geratu zan.

Ha-ta guzti be, Sir Roger-en teoria ezinezkoa zala pentsetan zan, burmuinean bero handiegia dagoala prozesu kuantikoak eragin ahal izateko. Baina... oin dala gitxi egitura barriak topau dira burmuinean, mikrotubuluak izenekoak. Egitura horreen barruan, euren izakereagaitik, prozesu kuantikoak sortu daitezke, nahiz



JOSU RICOY  
Funtzionarioa

eta horretarako tenperaturea, teorikoki, larregizkoa izan. Atzen finean, Sir Roger-en teoria ez zan hain zentzubakoa.

Gaiaz apur bat aldatuta, gogoratzen dozue Carlos Iturgaitz, PP-ko politikaria? Askotan (batzuen ustez gehienetan) hanka sartzean eban euskeraz berba egitean, batez be subjektu moduan ze kasu erabili, nork ala nor, asmatu edo ebazterakoan. Esaldi bat hasi eta aditzera ailegau baino lehen, bagenkian huts egin behar ebala (ala ez). Kasurako, Iturgaitzet esaldi bat hasten eban: "Ni (k barik)... (eta momentuan bertan "barriro hankea sartzean doa" hausnartuten genduan) "ez-dakit-zer-ez-dakit-nor" pentsetan (edo ikusten edo gogoratzen) dot. Zelan genkian txarto esan behar ebala berak esan baino lehen? Erantzuna garbi ikusten dot oin: jauzi kuantikoa.

Nire uste apalean euskeraz egitean jauzi kuantikoa erabilten dogu. Hizkuntza guztietan esaldia aldatzen dogu berbetan egiten dogunean, esaldia bera osotu heinean. Eta, akaso, hasikera baten buruan geunkana baino beste aditz bat erabilten dogu (transitibo edo intransitiboa, bardin da), hobeala dalako gogoan doguna adierazoteko. Zelan konponduten gara subjektua nor ala nork ondo ipinten? Ba... burmuin edo adimenak informazino hori zuzenean geroalditik hartzean dau, jauzi kuantikoa erabiliz.

Gure euskereak, nire ustez, jauzi kuantikoa erabilteko ohi-turea eskaintzen deusku eta horreek gure bizitza eta gure pentsakerea aberasgarriago egiten dau jakituria eta zorionerako ate gehiago zabalduz. Beste errazoi bat euskereari tinko eusteko!





LUMATUTEN



ILIA MITXELENA

Bidaiazeko moduak (II)

Bada, gustura sentidu nintzan, lasai... Lur barruan, artez inguratuta, edertasunerako sinbologiaz inguratuta... eta andrez. Argi eta garbi sentidu neban gure kemena. Eta nire lagun batzuk eta beste andra batzuk gogoratu nebazan: lekuak, alkarrizketak, kantuak, jantzak eta sormen-espazioak partekatzen doguzanean; energia positiboan ipiniz gure gogoak; erabili eta botateko mundu honetan, pantailakaz eta prisaka, ahaztu dogun alderdi sinboliko hori jagoten dogunean.

Hantxe, bisitautako espazio magiko horretan; andra talde bat imajinatu neban barre artean emozinoagaitik, seriotasuna momentuaren garrantziagaitik eta konexino energetiko horregaz. Guk egiten dogun gauza bera... eta sentidu neban dana lotuta dagoala; eta baietz, bidaia honek, beste errazoi batzuengaitik ez ezik, lekuen eta esperientzien konsumismotik

haragoko zentzua eballa.

Eta horra eroan gura zaituet... nondik bidaiazten dogun hausnartzera, zertarako eta zergaitik dogun gure etxeetatik, gure lurraldeetatik aterateko beharra; benetan gustetan jakun lekua edo esperientzia bisitatzera eta gozatzera goazen; edo kontsumo gizarte honen parte da, zein leku bisitatu behar doguzan, ze argazki egin behar doguzan eta gure sare sozialetan ze kontau behar dogun esaten deuskuna.

Era berean, ez dot argazkirik partekatu gura sareetan, ezta daturik emon be. Izan be, partekatutako edozein datuk modu esponentsialean eragin leikie leku bakarti, magiko eta zaindu bat, leku masifikau, turistifikau eta txikitu bihurtuz.

Ea nor garan eta zek egiten gaituan benetan zoriontsu ikusteko, gelditzen dakigun... egunerokoan eta bidaiazten dogunean (bidaiaztea gustetan bajaku).

Eta lekua benetan interesetan bajatzu, galdetu arazo barik Arratiako lekuren baten topo egiten dogunean.

ZERTZEAN



ILLART GUMUZIO

Gaia jarrita: "Igorreko jaiak"



- 1

Igorren jaiak heltzeaz dagoz ta publikau da kartela hainbet ekingaz gozatu geinke beste batzutan bezela

Gaztetxek, pala, errugbi, futbol, edo paellak bestela

urtean zehar Jaiban ein dabe aurten be behar itzela.
- 2

Ekainan 6a, plaza betea eta aldarre alaia

jubilatuak prest euko dabe txistorra eta urdaia

Maratun berbek jarriko dabe aurten pregoiaren gaia

txupina goian lehertuko da ta hasi daitela jaia.
- 3

Kuadrilla batzuk tortilletan dauz patatak ezin zuritu

lo gitxi einda eguzkipean dabe hainbeste meritu.

Deskantsu txiki bat ein, animo ta parte hartzen jarraitu

jaietan dauen programeagaz ezin etxean gelditu.
- 4

Kontzertuetan txosnagunean badau non ibili antza

egunez egun beteko dogu giro onez enparantza

gaua aurrera joan ahala ambientea gorantza

eta eguna argitu arte danok eingo dogu jantza.
- 5

Lan asko ein da urtean zehar dana ondo urten daiten

dana prest dago eta ambiente ederra ez daiten eten

iaz bardina esan gendun ta barriro dinogu aurten

entzun: ez zaitetz hona etorri ez badakizu egoten.
- 6

Gezalan jaiak ospatu barri oin Igorren. Gero zer dau?

auzoetako jaiak datorkuz hau ja ezin dogu parau

herriek bardin, Bedia, Dime... ostetik beste hiru-lau

uda honetan Arratieko jaietan ederto pasau.

BEGI TXINDORRA

Jakina da musikeak entzulea beste leku batera eroateko gaitasun magikoa daukala. Harry Bird-ek eta bere taldeak ekarritako soinu eskoziarrek Europako iparraldeko paraje hareetara eroan ebezan entzuleak uda giroko goiz bitan. Izan be, domekan Herriko Bentan kontzertua eskaini aurretik, Arteako eskolan egon ziran txikerrenei zuzeneko kontzertua eskaintzen.

Uda giroa egoan. Sargori apur bat, loreen usaina... mundua ahaztu eta poz atabiko batek harrapauta, ume eta nagusiek egin eben Eskoziara bidaia melodia hareen gainean. Irakasleek, akaso, oroitzapenak eta nostalgia apur bat sentiduko eben; umeentzat barriz barria izango zan ha. Eurentzat dana da barria-ta.

Eta han egon ziran geldi-geldi entzuten, oindino pardela daroazek be, atzenengo kantuan, jantzan egiteko baimena emon eutseen arte. Eta orduan jaia lehertu zan.





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

**LORAZAINTZA**

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostisl.com



**BEER & EDARIAK**  
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91  
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologoa

Bidebarri 1. behe  
48140 Igome-Bidaia  
T. 94 631 50 39  
Idazgaita Zentzua: 900  
R.P.S. 31/06



ZEBERIO

Hiru eguneko egitaraua prestatu dabe Zeberioko Ermitabarriko jaietarako

Erredakzinoa

Barikutik domekara, hilaren 13tik 15era ospatuko ditue San Antonio jaiak Ermitabarrin. Gauetan, musikea, Bilbosonidotik DJ Alex + Animazioa Lainekin eta Kaiña-Bi Trikifarrak ipiniko dabe, euskal jantzak be egongo dira eta gastronomiak leku garrantzitsua hartuko dau: barauskarria, sardina jana, herri bazkaria eta herri meriendea be egongo dira-ta. Gainera, jokoak, herri kirolak eta pato lasterketak be egongo dira, besteak beste.

Bagilak 13, barikua

12:30ean, jai hasikerako txupina. 13:00etan, mezea ermitan.

13:30ean, barauskarria. 17:30ean, pelota partiduak. 21:00etan, sardina jana. 21:30ean, Bilbosonidotik DJ Alex + Animazioa Lainekin.

Bagilak 14, zapatua

12:00etan, puzgarriak eta umeentzako tailerrak. 15:00etan, herri bazkaria. Pae-  
llea. Txartelak herriko tabernetan salgai hilaren 10era arte. 18:00etan, Txapel Jaurtiketea eta Igel Txapelketea. 18:30ean, bola-jokoa. 19:30ean, herri meriendea. 20:30ean, Bilbosonidotik DJ Alex + Animazioa Lainekin. 22:30ean, Kaiña-Bi Trikifarra. 01:00etan, txokolatea.

Bagilak 15, domekea

12:00etan, helduen pato lasterketea. 12:15ean, umeen pato lasterketea. 13:00etan, euskal jantzak Gazte Barri eta Gangorri jantza taldeakaz. 14:00etan, herri kirolak. Kirolariak: Karmele Gisasola, Uxue Anzorregi eta Irati Astondoa. 17:30ean, Mus Txapelketea.



LEMOA

Lemoatxetik ibilbide mitologikoa egingo dabe Lemoako Euskal Jaian

Erredakzinoa

Bagilaren 7an, zapatuan, izango da Lemoako Euskal Jaia aurten. Ibilbide mitologikoak, herri bazkariak eta poteo musikatuak osotuten dabe egitaraua. Aurreko eguenean, Jon Mentxakatorreren *Mito-ipuinak, zelan aitu, zelan zaindu* berbaldia egongo da, ibilaldi mitologikorako

girotzen joateko.

Egitaraua  
Bagilak 5, eguena

18:30ean, Jon Mentxakatorreren berbaldia *Mito-ipuinak, zelan aitu, zelan zaindu* Kotxepin Kultur Etxean.

Bagilak 7, zapatua

09:00etan, Jai Batzordeko kide

baten eskutik ibilbide mitologikoa Lemoatxetik, Gaztetxe ondoko parkinetik urtenda. 13:00etan, poteo musikatua Arraibitik. 15:00etan, herri bazkaria Arraibin. Euria egin ezkeroko eskolako aterpean. 18:00etan, poteo musikatua Merhezi taldeagaz EAtik hasita.

ARRATIA

Jaietako egun nagusietan gaueko autobus zerbitzua 11 herritan

Erredakzinoa

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM), Amorebieta-Etxano, Galdakao eta Usansoloko udalakaz batera, herriko jaietako egun nagusietan, gaueko autobus zerbitzua ipiniko dau, herri horreetako gazteek, kotxea hartu beharrean, autobusa erabili dagien.

Zerbitzua bagilaren 7an ipiniko da martxan, Igorreko jaietan. Ubiden izan ezik, AUMko beste 8 herritan eskainiko da zerbitzua.

Igorre, Bedia, Arantzazu, Dima, Zeanuri, Areatza eta Artean, autobus geroalekueetatik urtengo da autobusa; Lemoan, barriz, Correosen ondotik. Amorebieta-Etxanon, anbulatorio ondoko geroalekuan hartu behar da; Gal-

dakaon, Plazakoetxen eta Usansolon Labea eta errotondan.

Egunak eta orduak

Jaietatik bueltetako autobus zerbitzua, Igorren, jaietako zapatu bietan, bagilaren 7an eta 14an egongo da. Bedian, be zapatuan, bagilaren 21ean; Arantzazun, bagilaren 27an, barikuan; eta



hurrengo egunean Diman izango da. Amorebieta-Etxanoko Karmenetan, zapatuetan eskainiko da zerbitzua: garagarrilaren 19an, eta 26an. Lemoan, abuztuaren 2an egongo da etxera bueltetako autobusa eta Zeanurin, abuztuaren 14an. Areatzan, abuztuaren 29an, barikuan, eskainiko da zerbitzua. Artean, urri lehenengoaren 5eko gauerako, barikua, ipini dau autobusa AUMk. Galdakaoko jaietatik bueltetako urri lehenengoaren 13an eta 20an eta Usansolokoetatik, zemendia-  
ren 29an egongo dira. Ordutegiari jagokonean, 02:30ean eta 05:00etan hartu ahal izango da autobusa herrira bueltetako zerbitzua eskaintzen daben herri guztietan.

IGORRE

Aurkeztu da jente-aurrean II. Bardintasun Plana

Maiatzaren 16an egin zan aurkezpena. Dokumentua, prozesu parte-hartzaile baten emaitza zala esan

eben Daiteke-ko Araceli Guerrerok eta Arratiako

Udalen Mankomunitateko Bardintasun Teknikaria

dan Amagoia Villanuevak. Plana egiteko talde

eragilean 8 persona, 7 andra eta gizon bat, eta bost

udal teknikari egon dira. Igorreko II. Bardintasun

Planak 2029ra arteko indarraldia eukiko dau.



Erredakzinoa

2022an jaso eban Daiteke Aholkularitzeak plana egiteko enkar-gua. Lehenengotik, Lehenengo Planaren ebaluazioa egin zan. Diagnostikoa egindakoan, bigarren planaren diseinuan sartu ziran, eta hirugarren fasea, onarpena eta komunikazioa da. Fase horretan dago Igorreko Bardintasun Plana. Hurrengo pausua Udaltzaban onartzea izango da.

Planak, Emakundek araututakoaren arabera, lau ardatz ditu: gobernu ona, andren ahal-duntzea, ekonomia eta gizarte antolakuntza erantzukidea eta indarkeria matxista bako gizarte.

Bardintasuna, zerbitzu mankomunadua

AUMko Bardintasun Teknikariaren eretxian, "bardintasun politketan hainbat aurrerapausu emon dogu". Esate baterako, udal barruko plan lanketea edota, herriko alkarteek genero ikuspe-gia kontuan hartzea euren ekin-

tzetan. Udal eta AUMko langileen artean koordinazioa eta alkar-lana hobetu dirala be esan eban Villanuevak.

Bardintasun Zerbitzua mankomunadua da Arratian, eta udal-erri askotan, Igorren be bai, eskatzen da "horniduago egotea" herrietan. "Marko posibilista baten jarduten dogu" azaldu eban teknikariak. "Egitura bik osotuten dabe Bardintasun Arloa: zerbitzu mankomunaduak, udal gobernu batzordeak planaren kudeaketan, eta herritarren kontseilua non alkarte eta talde eta norbanakoe-k parte hartu ahal daben eta euren ekarpena egin bardintasun politketan" gaineratu eban AUMkoak.

Jabekuntza Eskoleari "egitura mailan buelta bat emotea ebatzi zan eta 2024-2025 Jabekuntza Eskolea ez da antolatu baina nik espero dot urri lehenengorako jabekuntza eskolako edukiak martxan egotea, eta hortik aurre-ra, aldaketa bat egotea; hau da, eskumenak bailarara bueltatzea eta interlokuzioa mobimentu feministeagaz izan, pisu erabakiorrago bategaz". Barrura begirako lan asko egiteko egon arren, egindako lana nabarmendu eban Villanuevak.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Euskaraldiaren Koordinazio Mahaia izugarritzat jo dau sortutako mobimentua

Maiatzaren 26an, Euskaraldiaren Koordinazio Mahaia ariketearen lehen balorazinoa emon eban jakitera.

Erredakzinoa

Aurtengo edizinoak be, udabarian egiten dan lehena, milaka lagun, boluntario eta langile bildu ditu, inoz baino herri gehiagok antolatu dabe, entidadeak goranzko bidean dagoz eta ia 135.000 lagunek ize-na emon arren, gura baino txapa gitxiago ikusi dira kalean.

Lehen balorazinoa egiteko Bilbon Irati Iciar Madinabeitia, Taupa euskaltzaleen mugimenduko lehendakaria; Javier Arakama Urtiaga, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailea; Aitor Aldasoro Iturbe, Eusko Jaur-laritzako hizkuntza politikarako sail-buruordea; David Aire, Euskararen Erakunde Publikoko mugaz gaindiko harremanen arduraduna; eta Jon Kobeaga Erkiaga, Euskaraldiko koordinazino orokorreko kidea batu ziran.

Inozko herri gehien antolaketa lanetan

Euskaraldian 450 herrik hartu dabe parte. "Esfortzu handia egin da mobimentua sortzean, herriz herri lanketea egiten. Euskaraldiko lantaldearen egiteko garrantzitsua izan da tokiz toki sortzean diran batzorde horreek hauspotzea, in-formazinoa emotea eta aholkula-

ritza eta laguntzea eskaintzea. Horretarako, ehunka bilera egin dira batzordekideakaz, ederra izan da Euskal Herriko txoko desbardinak Euskaraldiagaz loratu dirala ikustea, ederra tokian-toki sortu dan mobimentuaren barri izan eta bidelagun izatea" azaldu eben koordinazino mahaitik.

Batzordeen osasunaren seinale dala tokian-toki sortzean dan mobimentua eta ekintzak, eta herri eta auzoetan ekitaldi asko antolatu dirala dinoe. "Horrek ekarri dau euskeraz berba egiteko aukerak biderkatzea 11 egun horreetan".

Entidadeak, ahobizi eta belarriprest

Euskaraldiaren laugarren edizino honetan 7.500 entidadetik gora hartu dabe parte; aurreko urtee-

tako izen-emote kopurua gaindituz. Mota guztietako entidadeak izan dira eta koordinazino mahaia entidadeakaz epe luzeko hartu-emona izaten dau.

Ahobizi eta belarripresten izen-emote kopurua "ikaragarria" izan dala baina kalean ez dirala hainbeste txapa ikusi dinoe mahaioek. "Gura baino txapa gitxiago ikusi doguz kalean, eta hori aztertu beharrekoa da. Zergaitik persona batzuek txapa hartu bai baina gero janzen ez daben. Izan be, askotan aitatu dogun moduan, txapa ezinbesteko elementua da ariketa modu eraginkorrean egiteko".

Dana dala, uste dabe, oin arte heldu ez dan herritar geruza batera be heldu dala Euskaraldia eta zabaltzeko beste pausu bat emon dauala.



LEMOA/ZEBERIO

Nafarroan antolatu ditue gazte udalekuak Lemoa eta Zeberio

Erredakzinoa

Lemoako Udalak Lesakan antolatu ditu udalekuak, bagilaren 30etik garagarilaren 4ra, 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzat. Izena bagilaren 4ra arte emon daiteke [labur.eus/xtbhwtz](#) estekan.

Guztira 40 plaza dagoz eta leku kopurua gainditu ezker, zozketa publikoa egingo da. Lemoan errol-datutakoek izango dabe lehentasuna. Parte-hartzaileek hainbat jarduera egiteko aukerea izango dabe: Baztan Abentura Park-a bisitatu, Lesakako ugerlekuetara joan, ibilbideak egin eta abar.

Zeberioko Udalak barriz Lekarozen antolatu ditu 12 eta 17 urte bitarteko gaztetxoentzako udalekuak. Izena bagilaren 6ra arte

emon daiteke udaletxean edo online [labur.eus/zeberioudalekuak](#) estekan. Udalekuak bagilaren 23tik 27ra izango dira.

Hiru eta sei, eta zazpi eta hamar urte bitarteko umeek be emon daikie izena udalekue-

tarako Zeberion, bagilaren 6ra arte, udaletxean edo [labur.eus/udalekuzeberioume](#) helbidean. Udalekuok, bagilaren 23tik garagarilaren 11ra izango dira. Aste bakarrerako, aste birako edo hiru asteetarako emon daiteke izena.



Lekaroz.

IGORRE

Igorreko eskoleak antolatutako Azoka Solidarioak 1.350 euro batu ditu



Erredakzinoa

Batutako dirua Ongi Etorri Errefuxiatuak taldearentzat izan da.

Maiatzaren 23an, Inazio Zubizarreta Eskolako Hezkuntza Komunitateak (Igorreko Guraso Elkarte, ikaslegoa eta Hezkuntza Taldea), Azoka Solidarioa antolatu eban eskolako patioan. Bertan ipini ziran salgai, batutako hainbat liburu eta jostailu, umeek eskuz egindako produktuak eta familiek

egindako jatekoak. Merkatariek emondako produktuakaz egindako otzarak be zozketatu ziran, eta guztira, 1.350 euro batu ziran. Diru hori Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeari emon eutsien hurrengo asteetan.

Igorreko eskolako LHko 6. mailakoek errefujiaduen errealidadea landu eben eskolan, eta horren barri jakiteak eragindako solidaridadea gauzatu gura izan dabe azoka solidarioagaz.

ARRATIA

Arratiarrak ez dira sailkatu udagoieneko Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako



Munitibarreko saioko irudia.

Erredakzinoa

Maiatzaren 8tik 29ra, Udabarria Bertsotan, Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako sailkapen fasea jokatu da. Bertan, arratiar bi lehia-tu dira Illart Gumuzio igorretarra eta Enara Gallastegi dimoztarra, baina ez dabe lortu udagoieneko txapelketarako pasea.

Moltso bitan bananduta, 48 bertsolarik hartu dabe parte. Arratiar biak A moltsoan egon

dira. Moltso baktzeko puntuazino altuena daukien bertsolariek eskuratu dabe Bizkaiko Bertsolari Txapelketan parte hartzeako txartela.

Gumuziok, maiatzaren 8an, Munitibarren kantau eban eta bosgarren egin eban 146,5 puntugaz. Gallastegik, Balmasedan jardun eban eta seigarren egin eban 139 puntugaz. Sailkapen orokorrean atzekaldean gelditu dira Gumuzio eta Gallastegi.



ARRATIA, UBIDE

# Telefonorik ez daukien ume eta gaztetxoek, hainbat dendatakoak erabili ahal izango dabez

Erredakzinoa

Umeek lehenengo eskuko telefonoa eukiteko edadea atzeratu ahal izateko, Arratiako hainbat



denda edo establezimentuk telefonorik ez daukien ume eta gaztetxoei, dei bat egin behar izan ezker, eurena erabiltea eskainiko deusee. Gurea erabili zeinke izeneko kanpaina, Arratiako Udalen Mankomunitateko Adikizioen Prebentzio Komunitario Zerbitzuak, Igorreko merkatarien AME alkarateak eta Altxa Burua Arratiak abiatuko dabe alkarlanean bagilean.

Kanpaineagaz bat egiten daben estableziementuek bereizgarri bat izango dabe umeek jakin dagien, beharra izan ezker, hango telefonoa erabili leikiela.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

# Gorbeiak Euskadi Gastronomika saria irabazi dau Elkarrekin kategorian

Erredakzinoa

Gorbeia Helmuga Turistikoak Euskadi Gastronomika 2025 saria jaso dau Elkarrekin kategorian, euskal sektore turistiko gastronomikoko eragileen arteko lankidetzeta eta alkarlanagaitik.

Maiatzaren 19an izan zan sari banaketea. Bertan izan ziran Agustin Osoa Eribeko Landa Gorbeialdeko Kuadrillako presidentea, eta Olatz Urkiza Atutxa Gorbeialde Landa Garapeneko Alkarteko presidentea, teknikari eta helmugako enpresetako ordezkariakaz batera.

Euskadi Gastronomika sareak bultzatu eta Basquetourrek antolatutako lehen edizinoa izan da. Elkarrekin kategorian, turismo eta gastronomia arloan lankidetzeta eta sareko lana sustatzen daben ekimenak nabarmentzen dira.

Euskadi Gastronomika sare publiko-pribadua da, eta 600 en-

presa baino gehiago eta euskal gastronomiari lotutako baliabide turistikoak biltzean ditu. "Helburua turismo gastronomiko arduratsu, egiazko eta iraunkorra bultzatzea da, non bikaintasuna, barrikuntzea eta lankidetzeta ardatz izango diran, helmugea garatzeko" azaldu dabe Gorbeia Helmuga Turistikotik. Dimako Antzasti Museoa eta Garena jatetxea dagoz sare horretan.

"Sari honek Euskadiko Bihotz Berdearen apustua indartzen dau, modu gertukoan eta partekatuan eregitzen dan garapen turistikoko eredu baten alde. Eredu horrek balioa emoten deutse egunero ostatu, taberna eta jatetxeetako ateak zabaltzen dabezane, tokiko produktuak mimoz egiten dabezane, esperientzia gastronomikoak benetakotasunez gidatzen ditue, eta turismoa egiteko modu gizatiarrago eta koherenteago baten sinisten dabenei".



IGORRE

# Institutua handitzeko obrek bost hilebete daroez geldirik

2024ko abenduan gelditu ebezan Institutua handitzeko lanak.



Erredakzinoa

Zimentazino arazoak dagozala-ta obren baldintza pleguak aldatu egin behar dirala jakinarazo eutsan Hezkuntza Sailak Institutuko zuzendaritzeari. Bitartean, Institutuan ez dagoanez leku nahikorik, patioan dagozan barrakoietan ikasten dabe hirugarren mailako

lau taldetako ikasleek.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, obrak eta mantenimenturako zerbitzu bat dauka eta bera da obren ardurea daukana. Jaurlaritzeak egin eban lizitazinoa eta Mintegui enpresea da lanak egiten dauzana. Lanok, 2024ko urri lehenengoan hasi ziran eta abenduan gelditu. "Guk Gabone-

tako oporren bueltan, lehenengo astean, deitu genduan Eusko Jaurlaritzara eta esan euskuen al-daketa hori dagoala. Gero, zezei-lean korreo elektroniko bat bialdu genduan zehaztasunak eskatuz eta esan euskuen, honengaitik eta honengaitik geldituta dagozala lanak, eta barririk dagoanean jakingo genduala. Eta holan jarraitzen dogu" azaldu deutsie BEGITURI institutuko zuzendaritzatik.

Ikasle guztiak hartzeako institutua txiki gelditu da eta atzen urteotan barrakoiak dagoz patioan ikasleak hartzeako. Hirugarren mailako lau talde dagoz patioan eta Batxiller 2. mailako talde bi, eskolako gela bitan dagoz. Datorren urtean be, obrak egin barik jarraitzen badabe, holan jarraituko dabe ikasleek.

ZEBERIO

# Alegazinoak egin daitekez hilaren 6ra arte Mandoian parke eolikoa ez egiteko

Zeberio Mandoian Eolikorik Ez plataformeak eta proiektuak eragindako Arratiako herrietako (Igorre, Arantzazu, Lemoa, Bedia, Zeanuri...) herritarrak eta taldeak alegazinoak jasoten dabiz Feroskana parke eolikoaren proiektua geldituteko.

Erredakzinoa

Zeberio Mandoian be aurkeztuko ditu alegazinoak eta aurretik, herritarrek proiektuaren inguruko informazinoa alkarbanatu dau bazarretan. Bagilaren 1ean Austari, Arginatx, Ganzabal eta Burtotza mendi taldeek eta Makatzak Arratiako Ekologistak-ek Feroskana Parke Eolikoaren aurkako burruka eguna deitu eben eta protesta martxak egin ebezan Mandoiara.

Herritarren alegazinoei jagokie-nean, Zeberion "alegazinoak etbez etxe jasoten gabiz eta mahaiak be ipini dira sinatzeko. Austari Mendi Klubak be egingo ditu alegazinoak talde moduan" azaldu deutsie BEGITURI plataformatik.

Alegazinoetan, Jaurlaritzeari ingurumen inpaktuaren adierazpen negatiboa emon dagiala eskatzen deutsie ingurumenean eragin nabarmenak ditualako eta mehatxatutako espezieentat kritikoak diralako. Mandoia-Upo ez dagoala Euskadiko Energia Berriztagarrien behin-behineko Lurralde Plan Sektorialeko

hautatutako kokapen eremuen artean be adierazoten dabe Arratiako alegazinoetan. Baita, 200 metroko altuerea daukien aerosorgailu eta euren ebakuazino azpiegituren 5 kilometroko erradioan, BEGITUREN eremuko Igorre, Arantzazu, Bedia eta Zeberio dagozala be. Lemoa gune nagusitik 5,47 km-ra dago.

Mandoia-Upo eta Lekubaso inguruek "birika berdea" osotuten dabe herri askorentzat, Zeberio, Usansolo, Bedia, Lemoa, Igorre, Arantzazu, Galdakao, Arrigorriaga, Zaratamo, Ugao, Arrankudiaga... "herritarrek asko erabilten dabe paseetako eta

aisialdirako". Eta horrek duda barik, "bizilagunen bizi-kalidatean" eragina izango leuke.

Sai zuria

Arriskuan dagozan espezieei modu kritikoan eragingo deutse parke eolikoaren proiektuak "modu kritikoan sai zuriari eta, bereziki, sai arreari eta okil baltzari". Gainera hegazti eta faunearen azterketeak ez dauala kontuan hartzean leku honek daukan garrantzia pasabide moduan, nabarmentzen dabe.

Eusko Jaurlaritzeak, hegaztien-gan eta batez be sai zuriarengan eukiko leuken inpaktuagaitik ez deutso baimena emon Artzentales-Sopuertako 8 aerosorgailuko parke eolikoaren proiektuari.

Alegazinoak sinatzeko

Makatzak Arratiako Ekologistak taldeak aurkeztuko ditu jentearen alegazinoak Eusko Jaurlaritzan. Alegazinoak sinatu gura dauanak makatzak@gmail.com helbidera idatzi leike dokumentua jasoteko, eta sinatu ostean, barriro bialtzeko.





IGORRE

Herriko jaietako lehenak hastear dira

Gure eremuan herriko jaietako hasikerea emoten deutseen Igorreko jaiak hastear dira. Betiko lez, jardueraz betetako hamar egun eta gau batzuk izango dira, adin eta gustu desbardineta persona guztiek ondo pasau dagien. Umeentzako jolasak, lehiaketa gastronomikoak, kirol txapelketak, antzerkia eta, zelan ez, kontzertuak dagoz, beste gauza askoren artean egitarauan.

Bariku eta zapatu gauetan kontzertuak egongo dira. Sustrai Berriak, Kaos Etiliko, Merina Gris, Altxa Porrue, Sukena, Sune, Zirkinik Bez eta Zilibito Records dira, besteak beste, Igorreko gauak animauko dabezan taldeak.

Jaiei hasikerea emoteko Maratukoek botako dabe txupina.



Erredakzinoa

Bagilak 6, barikua

17:00etatik 20:00etara, Saharais en Arratia alkarteak egin-dako jakien dastaketea, Goiko Plazan.

17:00etatik 18:30era, ume eta gazteentzako jolasak Zaztapa-

rrakaz, Goiko Plazan.

18:30ean, euskal jantzak ume zein helduentzako, Arantzarte jantza taldearen eskutik, Goiko plazan.

18:55ean, argazki herrikoia udal-leteko balkoitik.

19:00etan, txupinazoa Maratu-ren eskutik. Bitartean, jubiladuen

alkarteak prestatutako meriendea eta ostean, *Larrain dantza* Arantzartegaz, Goiko Plazan.

19:25ean, kuadrillen argazkia, Goiko Plazako frontoiko harmailetan.

19:30ean, kuadrillen arteko olinpiadak: herri kirolak.

20:00etan, Latuna Bando elektrotxarangea eta buruhandiakaz kalejirea, Goiko Plazan hasita.

22:00etan, kontzertuak: Sustrai Berriak, Kaos Etiliko. Ostean, DJ Gose ta Sue.

Bagilak 7, zapatua

08:30ean, ermitetatik kantu-birea jubiladuen alkarteagaz, jubiladuen txokoan hasita.

11:00etatik aurrera, familien tailerra ume txikientzat (1-5 urte) Kultur Etxean.

11:00etan, Bizkaia Errugbi inkusiboa (Gorabide), Urbietta futbol zelaian.

12:00etan, Paella eta Gaztete (sandwichak 6-12 urte) Txapelketea, ziklo-krosa egiten dan landetan. Sariak: paellarik onenari euskal produktuen otzarea, umei barraketarako fitxak.

13:30ean, Gure Esku-ren argazkia ziklo-kroseko landan.

14:30ean, paella eta Gaztete xefen aurkezipena.

18:00etan, Mendilibarreri ome-

naldia Urbietta futbol zelaian. Beranoen partidua Arratia vs Eibar.

20:00etan, Safara Percussion batukada taldea; ostean, DJ Matxada ibiltaria.

20:00etan, Andra Mari eleizan: Luis Iruarizaga Abesbatza, Sondikako Agrupación Coral Olague eta Sodupeko Mendi Ona Abesbatza.

23:00etan, kontzertuak: Merina Gris. Altxa Porrue taldeagaz erro-meria.

Bagilak 8, domekea

11:00etan, Multikirol Txapelketea: ping-pong, igela, saskibaloia (6-12 urte) eskolatan; Motor Txiki Txapelketea (1-3 urte, norberak bere motorra ekarri beharko dau). Ostean, kopaua parte hartzaileentzat.

12:00etan, gazteen eskupelota partidua, goiko plazako frontoian.

Bagilak 9, astelehena

Umeen eguna eta soinuak bako eguna barraketan.

18:30ean, Musika Eskolako konboen emonaldia, txosnagunean.

Bagilak 10, martitzena

15:30ean, Mus Txapelketea Bidebarrin.

16:00etan, Mus Txapelketearen hasikerea.

19:30ean, Arantzartegaz jantza emonaldia, Goiko Plazako frontoian. Eguraldi txarra egin ezker kiroldegian. Baseritar jantzita etorri.

Bagilak 11, eguazkena

Umeen eguna eta soinuak bako eguna barraketan.

16:00etan, Trakamatraka eta As-trapalearen ikuskizun musikatua, Kultur Etxeko parkean.

18:00etan, umeen karaokea, txosnagunean.

18:30ean, Bulder Txapelketea (adin tarte guztientzat) Kino Mendi Taldeak antolatuta.

19:00etatik 21:00etara, zumba, txosnagunean.

Bagilak 12, eguena

17:00etan, nesken pala partidua, Goiko Plazako frontoian.

18:00etan eta 19:30ean, saio bi Musika Eskolako bakarlariak eta ganbarako musika, Kultur

Etxean.

19:00etan, karropotea herrian zehar.

21:30ean, gazteen herri afaria, txosnagunean. Txartelak Kukumán eta Herrikoan salgai.

Mozorrotuteko gaia: Munduko jai tradizionalak. Ostean, MJ Izarren Ahuntza.

Bagilak 13, barikua  
San Antonio eguna

10:00etatik 12:00etara, ume eta gazteentzako puzgarriak eta jokoak.

12:00etan, bits-festa, Lasarte parkean.

12:30ean, mezea, San Antonio ermitan.

17:00etan, Saharais en Arratia alkarteak egindako jakien dastaketea, ziklo-krosa egiten dan landetan.

17:00etan, Patata Tortilla Txapelketea, ziklo-krosa egiten dan landetan. Aurkeztuten dan tortilla bakoetako 3 euro ordaindu behar da. Saria: patata tortillarik onenari euskal produktuen otzara bat.

Bitartean Panta Rhei konpainia-ren *Naturaren ispilua* antzezlan.

19:30ean, tortillen aurkezipena.

20:00etan, poteo feministea DJ Pary&Tizagaz landan hasita.

20:00etan, Oilar Beltzak taldea Bidebarrin.

21:00etan, suzko zezena Kultur Etxeko parkean.

22:00etan, kontzertuak: Sukena, Sune eta Zirkinik Bez.

Bagilak 14, zapatua

09:00etatik 14:00etara, Benjamin Nesken Futbol Txapelketea, Urbietta zelaian.

11:00etan, Artzain Txakurren Txapelketea Laurkinen.

13:00etatik 14:30era, kantujirea Areatzako Bidebarrin.

14:00etan, umeen bazkaria Bidebarrin. Txartelak Txaparro eta Eguzkin salgai (3€ko menua: makarroiak, oilasko paparra eta izozkia).

17:00etan, Esna Gazte Bidebarrin.

17:30ean, Rally umoristikoa.

21:30ean, En Esenzia orkestra Bidebarrin; Nonahi erromeria txosnagunean.

24:00etan, kontzertuak: Zilibito Records; ostean, DJ Puntz.

Bagilak 15, domekea

10:00etatik 14:00etara, puzgarriak eta jokoak, Gurutze Gorriaren eskutik Bidebarrin.

12:00etan, *Parkour* tailerra (8 urtetik gorakoentzat) Kultur Etxeko parkean.

14:30ean, jubiladuen bazkaria, eskolako aterpean.

18:30ean, Gauargi Lasarte parkean.

19:00etan, jubiladuen karta txapelketetako sari banaketea, Lasarte parkean. Bitartean, kuadrillen arteko sari banaketea *online*. Saria: 300€ bonuetan.

Amaituteko, txokolatea AMEren eskutik, Lasarte parkean.

INMOBILIARIA

Promozioak, pisuak,  
etxeak, baserriak,  
lurak, txaletak...

ARRATIAKO BAZTERRAK  
ZEIN POLITAK DIREN!

Lehendakari Agirre, 8 behea · 94 631 80 04 · IGORRE  
igorre@inmolarrea.com  
www.inmobiliarialarrea.com  
WhatsApp 660 452 420

Gida Baimenak  
Animalia Arriskutsuak  
Nautika  
Arma lizentziak  
Segurtasun pribatua  
Garabiak

ORDUTEGIA  
Asteazken eta ostegunetan  
09:00 - 13:00  
Astelehen, astearte eta ostegunetan  
16:00 - 20:00

www.psicotecnicoganguren.eus - 611 72 88 55  
info@psicotecnicoganguren.eus





- **LAN PUBLIKOAK**
- **UR ETA SANEAMENTU SAREAK**
- **BASERRI ETA BASOKO BIDEAK**
- **PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK**



**94 631 72 57**



**ekin@ekinsl.eus**



**Igorre (Bizkaia)**



**PEDRO ELEXPE**

# Ibargutxiko errotea uraren erresuman

Zeanuriko Ibargutxiko errotea eta bere jaubea dan Pedro Elexpe alkarren eskutik hartuta dabiz, biak alkarrengandik ezin bereizi.

Alvaro Rabelli

Zeanuriko Undurraga auzunea ia amaitzen dan lekuan, Ipiñabururako bidean, bada txokotxo eder bat Arratia errekearen ondoan, Ibargutxi izenekoa. Aldagutxiko laminek zubitik gora, bide estu batek oroldi, lexar eta haretx ezin berdeagoen artean Ibargutxiko errotaraino garoaz. Bide osoan erreka eta latsetako uraren etenbako murmurioa dogu lagun. Lekua hezea da, uraren benetako erresuma, baina ederra, hortensia lora moltso handiek apaindua. Bertan dago Pedro Elexperen errotea, kanpoan hamaikatxo abere zaratatsu (oilok, antzarak, astoak, ardiak, ahuntzak eta indio-oilarrak nonon) eta barruan gizon saltsero eta abegikor baten bertasuna. Museoa dirudian errotako suetean hartu Didier bikote-kideagaz batera.

**Pedro Elexpe zaitugu, ezta?**

Bai, Pedro, Iparraldeko lagunentzat Kepa be bai. Izatez Igorrekoea naz, aita Dimakoea eta ama Igorrekoea. Eta niretzat sano garrantzitsua dana, ni naz baserritarren eta artzainen seme eta lobe.

**Aita be salseroa itxura baten.**

Bai, "Katue" ezizenez, Arratiako jotearen pausuak berreskuratu ebazan. Ha "Katue" eta ni "Katu-txue".

**Ogibidez baina...**

Ogibidez ule-apaintzailea naz, oin Areatzan nago, baina benetan maite dodana errotaria izatea da. Badakizu, saltsero handia naz, panderoa be jotzen dot, beti antxinako eran.

**Zergaitik errotaria?**

Ez dakit bat, odolean daroat, bertokoa zan birramama Lanbreabeko errotako hazama batek hazia izan zan. Hortik edo jatorta, baina, egia da txiki-txikitik errotakaz txora-txora eginda egon nazala. Gaztea nintzala Santo Tomasera uruna, sagarrak, porruak, danerik eroaten neban. Beti zaletasun handia euki dot.

**Eta holango baten errotaria izateko ametsa bete zenduan.**

Arratiatik kanpo urte luzeak egin nebazan, Reunion irlan, Marsellan, Miarritzen, eta atzenean Lapurdiko Hasparnen. Bertan errotaria bat, eihera bat hango berbetea, erosi ahal izan genduan, Xarretako eihera deritxana, 1646. urtekoa, ederra, aintzira bat ondoan eukan. Ha zurrategia be izan zan. Bertan, gainera, euskal kulturearen aldeko lana bete ahal izan neban. Esaterako, Iparraldeko

"Ametsa bete neban  
Hasparneko errotea  
erosi genduanean"

"Nire bihotza beti Euskal  
Herrian dago"



# HOLANGO ARRATIA GURA DOGU?

A photograph showing a large pile of trash and debris on a street, including plastic bags, cardboard boxes, and other waste. In the background, there are some buildings and a bridge.

TAMAINU HANDIKO HONDAKINAK **GARBIGUNERA** EROAN  
edo **MANKOMUNITATERA** DEITU

94 631 17 17

The logo of the Basque Government, featuring a stylized 'A' inside a circle, with the word 'Bizkaia' and the tagline 'Ez dugu ondoan gurea' below it.



tradizinozko asto-otzarak, xistroak izenekoak, berreskuratu nebazan. 2010ean *Les Cahiers de l'ane* aldizkarian "*Sur les traces de xistroak basques*" artikulua argitaratu neban saski horreen barri emoteko asmoz.

Eta sorginek hona atzera be ekarri zinduezan.

Akaso Lamindaoko sorginak izango ziran, baina, bai, Hasparnekoa saldu eta oin dala bost urte Larrazabal familiari Ibargutxiko errotea erosteko abagunea euki genduan. Ibargutxiko errotea, hasikeran, XVII. mendean, burdinola izan zan. Oindino martxan dago, Zeanuriko Olabarriko erroteagaz batera, bakarra. Harri bi daukaz, bata artoa eta bestea garia ehoteko. Gure uruna kategoriakoa da, fin-fina, bakarrik txikinarto motagaz behar egiten dogu, antxinako eran dana. Ondoko laban, pamitxeak eta artolabakoak egin ostean, artaburuak erretan doguz uranari saborea emoteko.

Jenteak artoa ekarten segiduten dau?

Inguruko jenteak batez be, baina Lezamatik, Larrabetzutik edota Orozkotik be badatoz. Antxinako eran be kobretan dogu, ehotutakoaren ehuneko hamabostagaz geratzen gara.

Lan handia emoten dau?

Bai, itzela batzuetan, harria garbitu behar da, pikau... Baina ni gustura nago hemen, naturaren erdian, osasun, lasaitasun eta bake ederrean. Errotea ni naz, eta ni errotea naz. Ibargutxi ez da museoa, halanda be, jentea etorri leiteke bisitan, urtero, maiatzaren bigarren domekan, Zeanurin Erroten Ibilaldia egiten da, orduan jentea hurreratzen da, kortan dagozan saski, asto-otzara eta lanabes guztiak kalera ateraten dodaz ikusi daiazan. Etxe barruan be XVIII. mendeko kobrezko pegarrak eta balantzak daukaguz, dan-dana da euskal kulturearen adierazlea, ni euskal kulturearen aldeko burrukalaria naz.

Izan be, Ibargutxi bada ondare moltso interesgarria, ezta?

Begira, errotea, labea, garbitokia, ubidea, anteparea, eta argindarra ekoizteko turbinea. Eta oilotegi zahar-zahar estilokoa, artxiboetan ikertuz berreskuratu dodana.

Administrazioen partetik dirulaguntzarik edo jasoten dozue errotea konserbetako?

Ez, bape be ez, hemen ondarea ez da kontuan hartzean, Iparraldean ostera bai. Hemen debekuak baino ez doguz. Turbinea, esaterako, sasoi baten hirurogei baserriri argia emoten eutsena ezin dogu martxan ipini, galarazo egiten deuskue. Hemen dana hondamendia da, euskal kultura pikutara bialdu gura dabe, gauzarik txikienetan be igarten da,

inork ez daki zapia buruan ondo lotzean, eta abarkak be ez antxinean egiten zan moduan. Jakin gura dauana datorrela hona eta eta nik erakutsiko deusat. Gauza askotan atzenengo mohikanoa nazala pentsetan dot.

Bitartean astoetan be bazabiz.

Astoak maitagarriak dira, une ho-

netan eme bi daukaguz, Priszila eta Zuriñe. Askotan bajatuten naz eurakaz Zeanurira errekaduak egiten, lehen egiten zan moduan. Jenteak pozik hartzean dau daborduko ezohikoa dan irudia. Hemetik gitxira Pitxirringo etorriko jaku, asto ar sementala kumeak egiten.

Eta egunen batean?

Birsortzen nazanean, hurrengo bitiztan, haize errota bat euki gura neuke, baina Bizkaikoa, aspaldian egon ziran modukoak, Getxoko Aixerrota langoa.

Holantxik, esakera zaharrak dinoan lez, "Gu hilda be astoak errotara joango dira".



# 2025eko JAIETATIK ETXERA BUELTATZEKO AUTOBUSA

Zerbitzu hau ARRATIako udaletako, AMOREBIETA-ETXANOKo, USANSOLOko eta GALDAKAOko gazteei zuzenduta dago.

|                                                                                                                                                                                                |                                                                                                                                                                                          |                                                                                                                                                           |                                                                                                                                                         |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>IGORREKO SAN ANTONIOAK</b><br><b>NOIZ:</b> Ekainaren 7an (Larunbata)<br>Ekainaren 14an (Larunbata)<br><b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan<br><b>NON:</b> Autobusen paradan              | <b>BEDIAKO SAN JUANAK</b><br><b>NOIZ:</b> Ekainaren 21ean (Larunbata)<br><b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan<br><b>NON:</b> Autobusen paradan                                        | <b>ARANTZAZUKO SAN PEDROAK</b><br><b>NOIZ:</b> Ekainaren 27an (Ostirala)<br><b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan<br><b>NON:</b> Autobusen paradan      | <b>DIMAKO SAN PEDROAK</b><br><b>NOIZ:</b> Ekainaren 28an (Larunbata)<br><b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan<br><b>NON:</b> Autobusen paradan        |
| <b>AMOREBIETA-ETXANOKO KARMENAK</b><br><b>NOIZ:</b> Uztailaren 19an (Larunbata)<br>Uztailaren 26an (Larunbata)<br><b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan<br><b>NON:</b> Anbulatorioko paradan | <b>LEMOAKO SAN INAZIOAK</b><br><b>NOIZ:</b> Abuztuaren 2an (Larunbata)<br><b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan<br><b>NON:</b> Korreosen ondoan                                        | <b>ZEANURIKO ANDRA MARIAK</b><br><b>NOIZ:</b> Abuztuaren 14an (Osteguna)<br><b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan<br><b>NON:</b> Autobusen paradan      | <b>AREATZAKO SAN BARTOLOMEAK</b><br><b>NOIZ:</b> Abuztuaren 29an (Ostirala)<br><b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan<br><b>NON:</b> Autobusen paradan |
| <b>ARTEAKO ANDRA MARIAK</b><br><b>NOIZ:</b> Irailaren 5ean (Ostirala)<br><b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan<br><b>NON:</b> Autobusen paradan                                              | <b>GALDAKAOKO SANTAKURTZAK</b><br><b>NOIZ:</b> Irailaren 13an (Larunbata)<br>Irailaren 20an (Larunbata)<br><b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan<br><b>NON:</b> Galdakaoen Plazakoetan | <b>USANSOLOKO SAN ANDRESAK</b><br><b>NOIZ:</b> Azaroaren 29an (Larunbata)<br><b>ORDUTEGIE:</b> 2:30etan eta 5:00etan<br><b>NON:</b> Labean eta Errotandan |                                                                                                                                                         |

Arratiako Udaletako Mankomunitatea  
Gazteria Arloa  
Area de Juventud

amorebieta etxano  
UDALA AYUNTAMIENTO

Galdakao  
Udala

Usansoloko Udalak  
Ayuntamiento de Usansolo

"Euskal kulturea suntsitu gura dabe"

"Ni naz errota honek adierazoten dauan guztia"



KUKUKE PROIEKTUA

# Partaidetza handia izan dau Artea Sarean, Kafrangak eta Zaztaparrak-ek alkarlanean egindako Kukuke proiektuak

Arteako umeek amaitu barri dan ikasturtean, hainbat domeketan, alkarregaz ondo pasetako ekintzak izan dabez Zaztaparrak Asti Taldearen eskutik.

Erredakzioa

Artea Sarean eta Kafrangak talde feministearen ekimenez, abiatu zan Kukuke. Parte hartu daben umeen kopuruak asti taldearen aurreikuspenak gainditu dauz eta ekintza guztiak interes handikoak izan dirala uste dabe antolatzaile, guraso eta umeek.

Zaztaparrak Asti Taldeko Naroa Aguilera eta Irune Intxausti azaldu deusiez BEGITURI nondik norakoak.

Zelan sortu zan Kukuke proiektua?

**Irune Intxausti:** 2024-2025 ikasturte hasieran Artea Sareanek egin euskun eskaerea. Artea Sarean eta Kafrangak talde feministeak ezetuten eben Zaztaparrak-en norabidea eta baloreak eta gura eben, eskolaumeei holango aisialdi eskaintzea egitea Artean.

Eta esan euskuen ea egin ahalko geunken proposamen bat. Alkartean emon zan baiezkua eta proponidu genduan urtailetik maiatzera, hilean ekintza bat egitea, domeketan.

Prestaketea eta aurrelanketea urrietatik urtailera egin genduan, Artea Sarean eta Kafrangak-egaz alkarlanean. Ha-ta guzti be, programazinoa egiteko askatasun osoa euki dogu eta izen-emotea, kartelak eta abar, alkarregaz egin doguz. Baita publizidadea be, ardurak bananduta. Gero proiektuaren aurkezpena egin zan jente-aurrean. Jente nahikotxo hurreratu zan eta pozik egon ginan.

Udaleko instalazioak be erabili doguz inoz, Kultur Etxea eta frontoia, hain zuzen be. Herriko Benta

eta kalea be erabili doguz. Ahal izan dogunean kalea, baina neguan barruko espazioak be behar izan dira.

Zeintzuk izan dira egin dozuezan ekintzak?

**Naroa Aguilera:** Ekintza bakotxak gai bat euki dau eta bakotxerako izen-emotea independentea izan da. Lehenengokoa aurkezpen modukoa izan zan, ezagutza jolasak eta hainbat jolas desbardin ondo pasetako eta alkar ezetuteko.

**Intxausti:** Bigarrena sukaldaritza izan zan. Martian, sormen tailerra. Txikiakaz egin genduan mosaiko bat eta arpegiak pintau eta nagusiakaz buztina, kandelak... eta gauza desbardinak. Eta aprilean, gupil eguna.

**Aguilera:** Mobimentua eta garraibide alternatiboak sustatu gura genduzan eta eskatu geuntsen umeei ekarteko gustuko edo etxean eukien gurgildun zeozer: bizikletea, patinak, patinetea... eta Arteatik egin genduan paseo bat, inguruko animaliak ikusten. Nagusiakaz Areatzaraino joan ginan, bakotxa bere eritmoan, eta bertan jolas bat egin genduan. Oso ondo urten zan dana, sano eguraldi onagaz.

**Intxausti:** Maiatzean natureagaz harremana landu gura genduan. Nagusiakaz egin genduan heritik ginkana bat eta amaieran landare bat landatu; eta txikiakaz, bingo naturala. Hau da, bakotxari emon geuntsan kartoi bat irudiakaz: txakurra, letxugea... apur bat danerik eta gero joan ginan Arteatik pasean eta ikusten genduzan elementuetan gometsak ipini behar ebezan.

Zenbat ume egon dira?

**Irune:** Kopurua ez da bardina izan ekintza guztietan, baina nagusie-

tan, askotan, 30 umerak heldu gara eta txikiak hamarretik gora. Talde bi egon dira: txikiak eta nagusiak. Txikiak, Haur Hezkuntzakoak eta Nagusiak Lehen Hezkuntzakoak LH6ra arte. Ume asko eta edade guztietakoak. Beste herrietako esperientziatik badakigu LH6koek ez dabela parte hartzean holango ekintzetan, beste adin batekoak sentiduten dira, baina Kukukun bai hartu dabela parte.

**Aguilera:** Eta nahiko nahastuta egon dira, edadea alde batera itxita. Igual eskolan be batera dagozalako eta herri txiki bat dalako izango da, baina alde horretatik oso ondo egon da. Oso pozik egon dira eta gu be bai.

Balorazino ona egiten dozue orduan.

**Aguilera:** Alkartean ebaluaketa prozesuan gagoz. Ebaluaketa sakona egin behar dogu baina gu oso pozik gagoz.

**Intxausti:** Familiei bialdu behar deutseguz ebaluaketak eta Artea Sarean eta Kafrangak taldeakaz batera ebaluaketea egin behar dogu, baina guri, *a priori*, eretxi jaku familiak, umeak eta herria danak egon dirala pozik eta proiektuak oso harrera ona euki daua. Alkartekideak pozik gagoz antolaketan beste taldeakaz egindako alkarlanagaitik, baita umeen partaidetza eta ekintzakaitik.

**Aguilera:** Ekintzak aproposak izan dirala uste dogu, umeen interese-koak. Umeak oso pozik egon dira.

**Intxausti:** Bildur apur bat geunkan, domekak ez dira herrian jente gehien egoten diran egunak eta. Plazea ez da beteta egoten dome-

ketan. Pentsetan genduan barikue-tan harrera hobia izan ahal ebalu proiektuak, baina alkartekideok ezin genduan barikuetan eta ebatzi genduan domeketan egitea, eta oso ondo urten da.

**Aguilera:** Gero be igarten zan. Amaitzen zanean ekintza bera be, jentea geratzen zan plazan.

Kukukek zer dauka berezi Zaztaparrak-en beste proiektuetan?

tuen aldean?

**Intxausti:** Desbardintasuna da boluntarioen proiektua dala eta autogestinaua Kafrangak eta Artea Sarean-egaz. Ez gagozala instituzinoen menpe, eta herriari egokitua dala.

**Aguilera:** Herriko testuinguru eta herriaren eskaeretara egokitzen saiatu gara, jentearen eretxia entzuten eta gure jardunean sartzean hori.

## Zaztaparrak Asti Taldea

Arratian begirale gehien mobiduten dauzan alkartea da Zaztaparrak Asti Taldea. Gehienak boluntarioak dira baina soldatapeko 13-14 langile dagoz. Horreek instituzinoen menpe dagozan proiektuetan egiten dabe behar. Igorren, ludotekea eta Euskera ahoan kudeatzen dabe; Areatzan, gaztelekua eta ludotekea; Diman be gaztelekua eta ludotekea eta Zeberion, liburutegia.

Igorre eta Areatzako udalekuak be Zaztaparrak Asti Taldeak eroango dauz aurrera.

Erakundeetatik kanpo, Zaztaparrak-en udaleku itxiak dira euren proiekturik handiena eta propioa. Bertan 100 ume eta 20 begiraletik gora izaten dira. Aurten Tuteran egingo dabe egonaldia.

Arratia eta Zeberion egiten dabe behar. Herria eta bertako jentea ezetutea ezinbestekotzat jotzen dabe ganorazko zerbitzua emoteko eta Arratiatik kanpoko proposamenak ez dabez hartzean.



Irune Intxausti eta Naroa Aguilera.



**ASesoría Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

**HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA**

*Blitzgo dago jabetza*

- Solmenton zein alokairuan
- Lurrak (jarkitzaile, landak, basoak...)
- EtxeDIZ/IZOR (jauak, basoak, etxeak...)
- Garaioak
- Lokal komertzialak
- Pabilioiak...
- Balonazkoak

*Bidea dago proiektu*

- Irakurri berriak erakitzeko
- Ingeniaritzak
- Arkitekto-proiektuak

**-Bere diseinua**

- CEE eta ITE-ak
- Hirigintza aholkularitza
- Negozioak irekitzeko kudeaketa



**arratia INMOBILIARIA**

Lehendakari Agneta 25. bidea - 48100  
Agintzaile: 94 631 31 89 - 425 94 35 35  
Bilaketa: 94 631 31 89 - 425 94 35 35  
Aholkulari: 425 252 117  
Arratia Inmobiliaria, S.L. - 48100



**Kili~Kili**  
Amorua eta Puntualitatea  
Lehendakari Agneta 10 - IGORRE (Bizkaia)  
Tel.: 94 673 43 81



**Olaetxe**  
OPTICA, ENTZUKA

Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gubitua  
Begiko tentsioa  
Lentillen adaptazinoa  
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel.: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es



**GORBEIALDE**  
LANDA GARAPENA  
ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO  
GARAPENEAN LAGUNTZEN





# EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN ETA SARI POTOLO HONEEK IRABAZI!

Begitu-lagun egin ezkerro, edo Begitu-laguna izan eta barri bat ekarten badozu (biak sartzean dira zozketan) garagarriaren 28ra arte bi sari honeen zozketan parte hartuko dozu:

## SARIAK

### A

### ENEKO

**Eneko Atxaren** Larrabetzuko ENEKO jatetxean SUTAN menua maridajeagaz lagun birentzako.



Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkarte**a Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonia: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 40€ ☐ 60€ ☐ 80€

Edo e-mailez, bialdu datuok: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

### HOTEL ORDUÑA PLAZA



### B

### HOTEL BALNEARIO ORDUÑA PLAZAN

astegoien pasa: gau bi,  
zirkuitua, gosaria eta  
masajea lagun birentzako.





MENDI LASTERKETEA

# Zeanuriko Unai Intxaurreagak eta Oihana Azkorbebeitiak irabazi eben Ubidestroí Traileko lasterketa nagusia

Erredakzinoa

Maiatzaren 31n jokatu ziran Ubi-destroi Trail mendi lasterketak, eguraldi beroagaz. Gorbeia- ren tontorra punturik gorena daukan 28 kilometroko lasterketea, Zea- nuriko Unai Intxaurreaga Pujanak irabazi eban 2:57:31ko kro- noagaz. Oñatiko Asier Alonsok (2:58:23) eta Araia-ko Adrian Saenz de Arregik (2:58:34) oso- tu eben gizonezkoen podiuma. Oihana Azkorbebeitiak (3:32:58)

irabazi eban andrazkoetan eta beragaz batera, Ane Mendizabal eta Maitane Arkarazo igon ziran podiumera. Lehenengo arratiarra Tamara Txikon lemoaztarra izan zan, hamargarren postuan. 22 kilometroko lasterketea ba- rriz, Hodei Lujanbiok (2:18:35) eta Itsasne Urkiagak (2:48:48) irabazi eben. Lenehengo arratia- rrak, Markel Ortuondo eta Joane Bilbao dimoztarrak izan ziran, seigarren eta bosgarren eginda, hurrengoiz hurrengo.



Unai Intxaurreaga Ubideko helmugan.

TXIRRINDULARITZEA

# Paraziklismoko Espainiako Txapelketea jokatu eban Oskar Garro igorreztarrak

Erredakzinoa

Podiumera igon ez arren, laugarren egin eban 55 kilometroko lasterke- tan eta seigarren erlojupekoan. Txapelketea Lugoko Friol he- rrian jokatu zan maiatzaren 24 eta 25ean. Oskar Garrok Euska- diko Selekzinoagaz hartu eban parte MC2 kategorian. Maiat- zaren 24an, erlojupeko laster- ketea izan zan, 16 km-koa, eta seigarren egin eban igorreztarrak. "Sensazino onak, baina aurkari gogorrak" izan ebazan BEGITU- ri adierazotakoaren arabera. Hu- rrengo egunean 55 km-ko las- terketea izan zan. "Hor oso ondo joan nintzan, atzen momentura arte. Azkenean laugarren egin neban, aurkariak ni baino hobeak izan ziralak. Baina sensazino onakaz, atzenengo momentura arte burrukan egon nintzan. Oso pozik" dino txirrindulariak.



Euskadiko Selekzinoak urrezko hiru domina, zidarrezko bi eta brontzezko bi eskuratutea lortu eban Lugon.

Triatloia prestatzen

Bagilaren 14an jokatu-ko dau Va- lentzian Espainiako Kopako atzen lasterketea Garrok, baina urri lehenengoan izango dan Espai- niako Triatloi Txapelketara begira dago daborduko.

FUTBOLA

# Andrazkoen Arratia Ak ezin izan eban igoerea lortu

Maiatzaren 18an jokatu eben Lleidan AEM Lleida B taldearen kontra igoera promozinoko bueltako partidua eta 1-0 galdu eban talde arratiarrak.

Gizonezkoen Arratia Ak eta Bk eta Lemoako Harrobik oster- a maiatzaren 24an amaitu eben ligea.



Arratia Ako jokalariai- k Lleidan.

Erredakzinoa

Andrazkoen Arratia A taldeak Bi- garren RFEF mailara igotea eukan jokoa, aurreko astegoienean, maiatzaren 11n, Igorren husna bardindu ostean aukerak eukazan Igorreko taldeak baina ezin izan eban partidua irabazi.

Gizonezkoak

Maiatzaren 24an jokatu eban Arra- tia Ak ligako atzen partidua eta 5-1 irabazi eban Basurto A taldearen kontra Urbietan. 0-1 hasi zan gal- tzean Arratia 15. minutuan kan- poztarrek sartutako gola dala- ta, baina atsedenaldira heldu orduko Jokin Ramirezek 42. minutuan eta Diego Faulinek penaltiz 44. minutuan sartutako golek 2 eta 1ekoa ipini eben markagailuan. Bigarren zatian Jon Ordeñan- ak, Amin Chairak eta Jokin Ramirezek sartu ebezan golak. Arratia Ak sei- garren postuan amaitu dau ligea

56 puntugaz. Gizonezkoen Arratia B taldeak eta Lemoako Harrobik maiatzaren 24an jokatu eben derbia eta ligako atzen partidua. Lemoaztarrak 0-1 heldu ziran atsedenaldira Oier Zalduegik 11. minutuan sartu- tako golari esker. Bigarren zatian Arratia Bk buelte- a emon eutsan markagailuari Ibon Agirretxek 70. minutuan eta Nikola Eguzkizak 73. minutuan sartutako golei esker. Ligea amaituta Arratia Bk hamaikagarren postuan amaitu dau 42 puntugaz eta Lemoako Harrobik hamabigarrenean puntu bardinakaz. Liga amaierak agur batzuk eka- rri ebazan be atzen partiduan eta Arratia A eta B taldeetako zazpi jokari- k agur esan eutsien Arratia- ri. Arratiako Ako Koldo Errekagorri, Ander Gondra atezaina eta Diego Faulin kapitaina eta Bko Mikel Car- do kapitaina, Aimar Iturrondobei- tia, Mikel Sarobe eta Borja Jauregi

atezaina. Aurreko astegoienean "Le- moako Harrobiren historiaren parte diran jokari biri agur es- ango deutsegu" adierazo eban Lemoako Harrobi taldeak sare sozialetan. "Cuadra eta Artetxe ha- mar urtez egon dira gure koloreak konpromiso- z, umiltasunez eta bihotzez defendatzen, baina agur esateko ordua heldu da. Erreferen- te izan dira zelai barruan zein kan- poan; eredugarriak gazteentzat eta harrotasun iturri klub osoarentzat. Bide barri bateri ekingo deusie, baina familia honen parte izango dira beti. Eskerrik asko, eta zorte on, lagunak!" gehitu eben. Parti- duan jokari bie- i omenaldia egin eutseen maiatzaren 17an.

Arratiak Jose Luis Mendilibar omenduko dau

"Bere kirol ibilbide arrakastatsua omentzeaz gain, 95/96 denporal- dian lortutako 3. mailara igoerea eta Arratiaren gainean beti euki dauzan berba onak eskertu gura doguz" dinoe Arratia taldekoek. "Horretarako, bagilaren 7an, jaie- tan, Arratia eta SD Eibar taldeen arteko beteranoen partidua anto- latu dogu, beste ekintza batzuen artean" adierazo dabe.

Arratia Kanpusa

Hilaren 13ra arte dago izena emo- teko epea zabalik hilaren 23tik 27ra Urbietan egingo dan Arratia taldearen Futbol Kanpuserako. Arratia Futbol Taldeak, aurreko urteetan lez, aurtengorako be antolatu dau futbol kanpusa. Fut- bolean jokatu, jolasak, teknifikazi- noa eta ginkanea egiteko auke- rea izango dabe 2013 eta 2020 urteen artean jaiotakoek. Udale- kua goizez izango da, 09:30etik 14:00etara. Parte hartzaileek 100 euro ordaindu beharko dabez eta horregaz eguneko armozua eta kamiseta bat hartuko dabe. Parte hartzeako 747 452 538 edo 94 631 57 04 telefonora deitu edo [cdarratia@cdarratia.com](mailto:cdarratia@cdarratia.com) helbide- ra idatzi behar da. Kanpusak aurre- ra egiteko gitxiene-ko partaidetza bat egon behar da.

Egun horren helburua, entrena- mentu egun bat izateaz gainera, gazteek euren artean eta ibilbidea ezetutea da. "Gero opari berezi bat emongo deutsegu, Arratiako gazteek bakarrik eukiko dabena" azaldu deutso BEGITU- ri Jurek Ziem- kiewicz antolakuntzakoak. Holan, bagilaren 7ra arte, Gorbeia Suzieneko 21 kilometroko lasterke- tan izen-emote galdetegia beteten daben 23 urte baino gitxiagoko Arra- tiako gazteek daukie hitzordua, bagila- ren 22an, 09:00etan. Pagomakurren abiatu eta plazarinoko ibilbidearen zatia egingo dabe hurreratutakoek, Onditiz Iturbe, Aitor Ajuria eta Itsasne Urkiaga mendi lasterkariakaz batera.

MENDIA

# Arratiako gazteak animau gura ditue Gorbeia Suzien lasterketan parte hartzera

Erredakzinoa

Aurten, barrikuntza moduan, Gor- beia Suzieneko 21 kilometroko las- terketan, Arratiako 23 urtetik behe- rako gazteei emon eutseen aukerea izena emoteko lasterketan egun bat lehenago, ez eitezan kanpoan gera-

tu. Erantzun ona eta interesa ikusita, Arratiako 52 gaztek emon eben izena eta deialdia egin deutsee gaz- teei bagilaren 22an, entrenamentu moduan, ibilbidearen zati bat egite- ko esperientziadun mendi lasterkari batzukaz batera. Parte hartzean da- benek opari bat izango dabe.



TXIRRINDULARITZEA

Mischa Bredewoldek irabazi eban Itzulia Womeneko Igorreko etapea

Maiatzaren 16tik 18ra jokatu zan Itzulia Women Euskal Herrian zehar. Demi Volleringek irabazi eban eta Mischa Bredewoldek eta Sarah Van Damek osotu eben podiuma.

Erredakzinoa

Bigarren etapeak Igorren eukan helmugea. Bertan, Mischa Bredewold herbeheretarra izan zan irabazlea, aurreko eguneko etapan legez. Liane Lippert alemaniarrek eta Soraya Paladin italiarrak egin eben bigarren eta hirugarren, hurrengo hurrengo Igorren. Usoa Ostolaza zaraustarra, seigarrena izan zan. Ugao-Igorre etapeak 116 kilometro eta lau mendate puntuagarri –Bikotx-gane, Lamindao, Gerekiz eta Arrieta- eta esprint bi, bata Larrabetzun eta bestea Lemoan, izan ebazan. Arratiako Ziklista Elkarteak eta boluntarioek hartu eben segurtasunaren ardurea eta etapea Igorren amaitzea pozez bizi izan eben. "Bi bider pasau ziran Igorretik, eta aukera izan genduan, bietan ikusteko, bertan izan ziran-ta Europa mailan dagozan ziklistarik onenak. Gainera, eguraldi ona egin eban,

eta jente asko animau zan lasterketea ikustera. Honetaz aparte, Euskal Telebistari esker, posible izan zan lasterketea telebistatik be ikustea. Antolakuntza mailan be, oso ondo egon zan dana. Arazo barik" azaldu deutsie BEGITURI AZEtik.

Beste etapak

Zumarragan hasi zan Itzulia eta etaparik luzeena egin eben lehenengo egun horretan lasterkariek, 148,5 kilometro, Agurainen

amaitzeko. Hiru mendate, Arlaban, Opakua eta Azazeta igon eben eta esprint bi, Agurainen 74. kilometroan eta Kanpezun 105.ean, eukan etapeak. Bredewoldek, Couzensek eta Vigiék osotu eben lehenengo etapako podiuma.

Domekan, maiatzaren 18an, izan zan Donostia-Donostia atzen etapea. 112,6 kilometro, hiru mendate –Jaizkibel, Gurutze eta Mendizorrotz– eta esprint bi izan ebazan. Etapea Demi Volleringek irabazi eban eta Sarah Van Damek eta Justine Ghekiek egin eben bigarren eta hirugarren. Etapa honetan ebatzi zan sailkapen orokorra eta Bredewoldek etapa bi irabazi baebazan be, Itzulia Volleringek irabazi eban eta Bredewoldek bigarren egin eban.

Itzulia Women 2025 sailkapen orokorra

- 1-. Demi Vollering (FDJ-SUEZ) 09:55:44.  
 2-. Mischa Bredewold (Tema SD Worx-Protime) +00:48.  
 3-. Sarah Van Dam (Ceratizit Pro Cycling Team) +01:01.



BOLA-JOKOA

Zeanurik irabazi dau Arratiako Komarkala Bola Txapelketea

Maiatzaren 17an jokatu zan Elorriagan (Lemoa) txapelketako atzen tiraldia eta Zeanurik irabazi eban 526 puntu eskuratuta eta baita txapela be.

Erredakzinoa

Martian Lemoan hasitako txapelketea, Lemoan amaitu zan bosgarren eta atzen tiraldiagaz. Lemoa A, Bargondia (Lemoa Bk etxe lez euki dauana), Elorriaga (Lemoa), Oba (Dima), San Kristobal (Igorre) eta Zeanuri izan dira parte hartu daben taldeak. Txapelketea lau txakinetara jokatu da. Zeanuriren ostetik Elorriaga sailkatu zan bigarren 500 puntugaz, hirugarren Bargondiak egin eban 452gaz, laugarren Obak 420gaz, bosgarren Lemoak 398gaz eta seigarren San Kristobalek 359gaz. Txapelketea amaituta holan gelditu da sailkapen orokorra: 1-. Zeanuri 2.768 puntu; 2-. Elorriaga 2.631 puntu; 3-. Lemoa 2.583 puntu; 4-. Oba 2.509 puntu; 5-.

San Kristobal 2.355 puntu eta 6-. Bargondia 2.341 puntu. Tiraldiaren ostean bazkaria izan eben Lemoako Amorrortu jatetxean. Han Zeanuriko taldea-

ri, Juan Mari Aurtenetxe "Txirpu" banakako eta Mikel Lekuona "Kaiku"gaz batera binakako Oba taldeko irabazleei txapelak emon jakiezan.



Zeanuriko taldeko kide bat txapelagaz.

MENDI LASTERKETEA

Onditz Iturbek Txindokiko Kilometro Bertikala irabazi dau

Erredakzinoa

Maiatzaren 19an jokatu zan Txindokiko Kilometro Bertikala, Euskal Herriko Txapelketarako zein Koparako puntuagarria zana. Iturbe mendi lasterkari igorretarrak jantzi eban txapela, lasterketea 44 minutu eta 13 segundotan egin da. Bigarrena Leire Elola (48.24) eta hirugarrena Claudia Sarrate (48.40) izan ziran. Gizonezkoetan, Aitor Ugarte aramaiotzarra izan zan irabazlea.

Lasterketeak, 3,6 km eta 980 metroko goranzko desnibela eukan. Eguraldi ona egin eban, publikoa lasterkariak animetan egon zan, eta igorretarrak erraz irabazi

eban, bigarrenari 4 minutuko alde aterata. "Hezetasun puntu bat euki arren, eguraldia lagun euki genduan. Urten ginanean behekaldean lainoa egoan baina goian eguzkia eta garbi. Beraz, galapan egiteko, ondo. Ni atzen taldean urten nintzan baina ingurukoak ahaztu eta nirean zentratu aurrera egin neban. Espero baino hobeto erantzun eban gorputzak eta gustura sentidu nintzan. Giroa be ederra izan zan eta jentearen animoek bultzadea emoten eben" azaldu deutso Iturbek BEGITURI. Ha-ta guzti be, lortutako denporea ez zala berak gura ebana eta "beharrean" segiduko daua gehitu dau.



Podimeko kajoirik altuenean Onditz Iturbe igorretzitarra. Argazkia: EMF.

TRONTZEA

Ruth Linaza Euskadiko Trontza Mistoko finalean egongo da

Erredakzinoa

Bagilaren 7an jokatuko da, Durangoko Landako Gunean, 12:00etan. Lemoako kirolariak Kimetz Lapazaran izango dau bikotekide eta Miren Eizmendi eta Oier Aizkorbe, Sara Jimenez de Aberasturi eta Mikel Gonzalez eta Garbiñe Lopez

de Uralde eta Ion Lapazaran bikotekaz neurtuko dira. Finalean egin beharreko lana, 45 ontzako enbor horizontalean 5 ebaketa bertikal; 45 ontzako enbor bertikalean 5 ebaketa horizontal eta 45 ontzako enbor horizontalean 5 ebaketa bertikal egin beharko ditue.



Ruth Linaza ezkerrean.



IPUIN KONTAKETEA

Sagu kontuak liburuan oinarritutako umeentzako ipuin kontaketea Lemoan

Erredakzinoa

Bagilaren 11n, Lemoako Kotxe-pin Kultur Etxean izango da ipuin kontaketea. Bertan, Alabazan konpainiako Bego Gomezek Arnold Lobelen liburu ezagunean oinarritutako ipuinak kontauko ditu, *Sagu txiki*, *sagu maite* izeneko saioan. 2 eta 4 urte bitarteko umeentzat da egokia. Saioa 18:30ean hasiko da eta behin saioa hasita, ezin izango da sartu ipuin tartetean ez bada.

"*Sagu kontuak* liburu ezagunean oinarrituta, honen lehen istorioak biltzean ditue saioko beste ipuin guztiek. Ipuin guztietako



protagonistak gure txikien hain gustuko diran sagutxo jator horreek dira, akaso euren antz handia daukielako: txikiak, goxoak eta jostalariak" irakurri daiteke saioaren aurkezpen testuan.

LEHIAKETEA

Zabalik dago Arteako Jaietako Kartel Lehiaketarako lanak bialtzeko epea

Erredakzinoa

Bagilaren 16ra arte aurkeztu daitezke udaletxean lanak. Kartelean, Arteako Jaia 2025 testua agertu behar da. Irabazlea herritarrek aukeratuko dabe bozketa baten bidez eta irabazleak otzara bat jasoko dau saritzat.

Lehiaketan parte hartu daikie 16 urtetik gorako Arteako herritarrek. Kartelaren neurria DIN A4 izan behar da, formatu fisiko zein digitalean. Udaletxean aurkeztu behar da kartela eta bertan emon behar dira egilearen datuak.

Irabazlea aukeratuteko, herri-tarrek bozkatu ahal dabe, bagilaren 20an, barikua, 17:00etatik 20:00etara Kultur Etxean.



KALE ANTZERKIA

Naturaren ispilua antzerkia Igorreko jaietan

Erredakzinoa

Hilaren 13an, Panta Rhei konpainiak *Naturaren ispilua* kale antzerkia eskainiko dau Igorren. Jaietako programan dago eta Tortilla Txapelketea egiten dan bitartean eskainiko da ziklo-krosa egiten dan lekuan. Txapelketea 17:00etan hasiko da.

Sinopsia

Irdin hartz-kume emea bakarrik eta abandonauta dago bizitzako bidean. Melankoliatik igesi dabil bere izakerea eta balioa miatuz, "munduan leku bat" bilatu guran, zorientsu biziteko aukerea emongo deusnan familia bat eta etxe bat bilatu guran. Mehatxu batek erne ipinten ditu basoko animaliak: Otso Zuri bakartiak bere nahia inponiduten dau gitxien espero dan lekuan. Basoaren sakoneko isiltasunean indar natural handi bat sortzean da eta lehen benetakoa irudian etorkizuna biraka dabil oin, kontrolik eta zentzu barik. Irdin hartz-kumeak bizitzara, maitasunera eta bere barnerantza joateko hartu dauan ebatzi sendoak erakutsiko deuto bere amets guztiak bizi diran mendiaren bihotzera iristeko bidezidorra.

URRUZUNO

Arratia Institutuko hiru ikasle saritu ditue Urruzuno Literatur Lehiaketan

Erredakzinoa

Urruzuno Literatur Lehiaketea gaztetxoentzat antolatzen diranen artean garrantzitsuena da eta idazle ezagun askok irabazi eben gaztetxotan sari hau. Sarituetakoen artean Arratia Institutuko ikasleak egoten dira sarri. Aurten, institutuko hiru ikaslek jaso dabez lau sari.

Sari bi jaso dauz Kattalin Respaldiza Urigoitiak; poesia B atalean *Bihotz baten hitzak* lanagaz eta prosa B atalean, *Irratiko kantua* izenekoagaz. Enara Gallastegi Barrenetxeak, poesia A saria jaso dau *Errotondetako lorategiak* lanagaz eta Jasone Gabiria Mendiroleak prosa A atalean, *Azken hondarrak* lanari esker.

Aurtengo epai-mahaia Mikel Ayllon, Itxaro Borda, Miren Gorrotxategi, Iratxe Retolaza eta Patxi Zubizarreta idazleek osotu dabe.



Kattalin Respaldiza.

BERTSO-SAIOA

Bertso-bazkariaren 25. urteurrenean, omenezko ekitaldia egongo da Diman

Erredakzinoa

Dimesten proiektuaren barruan eta Dimako Bertso Eskoleak, Txabilak, Gazte Barri jantza taldeak, Abizarie Euskera Taldeak eta Udalak, Luis Prieto bertso-bazkariari, Unai Iturriaga eta Jon Maia bertsolariei eta herriari omenalditxoa egingo deutsee bagilaren 6an, Dimako plazan.

Izan be, 25 urtean bertsotan egin ostean, Luis Prieto bertso-bazkariari omenaldia egin gura deusie antolatzaileek.

Arrastiko 18:00etan hasi eta ilundu arteko egitaraua prestatu dabe. Herri kirolak ikusteko aukerea egongo da lehenengotik; izan be, Bizkaiko Txinga Erute Txapelketea jokatu da frontoi txikian, eta Jose Martin Bustinza Tubik, Jon Loiolak, Zihara Zabalak eta Ane Atxutegik herri kirol erakustaldia egingo dabe. 19:00etan, agurra egingo dau Gazte Barri jantza taldeak eta ostean, eskolako umeek kantauro dabe; gero, J Kantuz, kantu zaharrak egiten dauan taldearen txandea izango da eta ostean, J Laukoitza, Tik Tok sare sozialera abestiak eta jantzak igoten dauan taldearena. Amaitzeko Jon Maiak eta Unai Iturriagak ordubeteko bertso-saioa egingo dabe, eta kopautxoa egongo da jaiari amaierea emoteko.

**25 urteko historia**  
Bertso-bazkaria Luis Prieto ber-



tso-bazkaria izenagaz jaio zan. "Bertso-bazkaria egitea okurridu jakun 2000 urtean baina ikusten genduan oindino bertsozaletasunik ez egoala Diman. Orduan atxakia lez, eta guk Luis Prieto peñagaz harremana geunkanez, ebatzi genduan Luis Prieto peña bazkarian sartzea, futbolaren atxakia erabiltita, bertsozaletasuna bultzatzeko. Hasieran peñakoek ipinten eben bai dirua, bai jentea egongo zan bermea" ekarri dau gogora Ibon Iza bultzatzaileetakoak.

Bildurrez hasi zirala dino, urte haretan bertso-saio bat antolatu zan Diman eta sano jente gitxi hurreratu zalako. Ez zan gauza bardina gertatu Luis Prieto bertso-bazkariagaz, jente

asko hurreratu zan-ta bertara. Lehenengoko urte hareetan "jente pilo bat, orduan ETBko aurkezle zan Julio Ibarra be bai" joaten zala dino Izak. Gero, bertsozaleek bakarrik segidu dabe bertso-bazkarian.

Horregaitik 25 urte egitera heldu izanak meritu handia daukala dino. "Apurka-apurka, eta kontinuidade bat euki dau, ez da urte bateko lorea, urteetako baina. Baina urtero-urtero eta akatsik egin barik, pandemia denporan baten egin genduan kale, baina balkoitik balkoira edo beti egon gara hor, egoera gaxenetan be hor egon gara. Esan gura dot gauzak sortzea kostau egiten dala, eta mantendutea, gehiago. Jarraikortasun bat emon behar jako. Gero jenteak dakianean hori egongo dala, ze badaki bagileko lehenengo astegienean egongo dala, zain egoten da".

**Jon Maia eta Unai Iturriagari be omenaldia**  
Hasikeratik egon dira Maia eta Iturriaga Dimako bertso-bazkarian parte hartzean. Eta nahiz eta batzuetan bata edo besteak kale egin, orokorrean, hor be jarraikortasuna egon dala dino Izak.

Omenaldia, euren ibilbideagaitik, euskal kultureari hainbeste arlotatik egindako ekarpenakaitik izango da.



IRAKURLEEN TXOKOA

Goiatz Labandibarrek Zoo ipuin bildumea aurkeztuko dau Artean

Erredakzinoa

Bagilaren 7an, zapatua, 12:30ean, Goiatz Labandibar Arteako Kultur Etxean egongo da Zoo (Elkar, 2024) narrazino liburua aurkezten. Udalak antolatatu eta Alaine Agirrek bideratutena dauan Irakurleen Txokoaren saioa da hau.

*Geltokiak edo helduta entzuteko abestiak* (Elkar, 2013) da Labandibarrek argitara emon eban lehen lana eta *Eresia hil-kanta aitari* (Elkar, 2025) atzena. Tartean, genero guztietako hainbat lan eta sari ugari jaso ditu Oiarztungo idazleak.

Sinopsia

Paraje urruneneko kanpin gal-

duenera bakardade bila doan familia, ugerlekuko monitore moduan sos batzuk atera gura dituan ikaslea, parranda asmotan dabilen gazte taldea, tribu osoa inguruan biltzean daben matriarkak, autokarabanak alkarreri erakutsiz lehiatzen diran bikoteak, lehenbiziko mosua, lehenbiziko ligea, lehenbiziko adar jartzea probauko dauana... Askotarikoa da kanpinetan mobiduten dan faunea, eta horren lagin eder bat dakarku Goiatz Labandibarrek ipuin bilduma honetan: istorio jostalari eta argiak, begirada zorrotz baina amultsua zuzentzen deutsienak giza jenteari, gure ahulguneak umorez hartu eta opor giroari jagokon arintasunaz ospatzen dituanak.



BERTSOLARITZEA

Enara Gallastegi dimoztarra da Bizkaiko Eskolarteko txapelduna

Erredakzinoa

Bizkaiko Eskolarteko Bertso Txapelketako finala arratiarra izan zan guztiz. Zortzi finalistetatik lau arratiarrak ziran eta txapela Enara Gallastegi dimoztarrak jantzi eban buruz burukoa Ekhi Zuluaga igorreztarragaz lehiatu ostean. Idatzizko DBH3-DBH4-Batxilergoko bigarren saria be Arantzazuko Ekain Menikarentzat izan zan. Bizkaiko Eskolarteko idatzizkoan 150 partaide inguru izan ziran eta bat-batekoan, 28.

Maiatzaren 31n jokatu zan finala lurretan. DBH3-DBH4-Batxilergoko idatzizkoa 10:00etan eta 11:30ean, bat-batekoa. Finalistak, Aiala Irurtia Arantzazukoa, Ekhi Zuluaga Igorrekoa, Enara Gallastegi Dimakoa, Iradi Barrenetxea Arteakoa, Munitibarko

Jon Abasolo, Berrizko Karmele Abaitua eta Zornotzako Maddi Aurtenetxe eta Naroa Iturrioz izan ziran.

Zortziko handian eta txikian ofiziotan egin eben eta, ostean, bakarka gaiari erantzun. Enara Gallastegi eta Ekhi Zuluaga izan ziran puntu gehien batu ebezenak eta, beraz, buruz burukoa jokatu eben. Gallastegi eta Zuluaga Euskal Herriko eskolarteko finalerako sailkatu dira; bagilaren 14an jokatuko da Arantzan. Dimoztarrak batu ebazan puntu gehien buruz burukoan eta 2025eko Bizkaiko eskolarteko txapela lortu eban. Txapela Eneko Abasolo Txabarri "Abarkas" bertsolariak ipini eutsan arratiarrari.

Bat-bateko finalean aurkezle beharretan Arantzazuko Igor Menikak jardun eban.



Enara Gallastegi txapelagaz eta Ekhi Zuluaga bere atzean.

ANTZERKIA

Arratiako VIII. Haur Antzerki Topaketak Igorren



Erredakzinoa

Kurkuluxetan Elkarrean antolatuta, bagilaren 4 eta 9an, 17:30ean, izango dira antzerki topaketak Igorreko Kultur Etxean.

Lehenengo saioa hilaren 2an izan zan eta saio horretan Arteako eskolako umeek *Nor da hiltzailea*, Areatzako eskolakoek *Sorgina eskuzabala* eta Igorreko eskolakoek *Artzain gezurtia* lanak taularatu ebezan. Areatza, Artea, Igorre eta Lemoako eskolek hartuko dabe parte topaketetan eta 8 lan taularatuko ditue.

Hilaren 4an, Arteako eskolako umeek *Ilargia salbatu behar da* eta Lemoakoek, *Zoriontasunaren harria* aurkeztuko dabe. Azkeneko saioan, hilaren 9an, hiru lan aurkeztuko ditue: Igorrekoek, *Makilakixki* eta *Martin Txiki* eta Lemoakoek, *Danbor magikoa*, hain zuzen be.

DUNBA

Lemoatik Lekeitiora

Lemoako J.B. Eguzkitza Meabe eskolako 6. mailako ikasleak

Lemoako 6. mailako neska-mutillak Lekeitiora joan ziran autobusez Trinkete izeneko aterpetxean atsedena hartu eta aisialdiaz disfrutau ahal izateko.

Martiaren 18an, goizeko 09:15ean Lekeitiora joateko autobusa hartu eben. Autobusean ordu bat eta 5 minutu egin ebezan. Bidaia atseginagoa egiteko abesten joan ziran.

Heldu ziranean, Trinkete aterpetxera joan ziran maletak eskuan ebezala. Monitoreak alkartu ostean, frontoira joan eta bertan, goiz osoan zehar, mota askotako jolasak eta jarduerak egin ebezan. Jolasean ibili ostean, bazkaltzera joan ziran izugarrizko goseagaz. Bazkaltzeko, arroza izan eben, 2.



platerra solomoa patatakaz eta postrea frutea. a

Geroago Lumentza mendira joan ziran eta hor egonda, txorizo bokatak meriendau ebezan. Menditik bajatu eta Lekeitioko er-

digunera joan ziran. Monitoreek plaza batera eroan ebezan ikasleak eta ginkana bat egingo ebela esan eutseen. Taldeak egin eta ginkaneagaz martxan ipini ziran. Ginkaneak ordubete inguru iraun

eban eta oso ondo pasau eben.

Amaitzerakoan, aterpetxera bueltan joan ziran etorri ziran bide beretik. Bertan, duxatzeko txandak egin ziran, batzuk duxara joan ziran eta beste batzuk maletak txukundu ebezan hurrengo egunean arinago egiteko. Duxau ostean, afaltzera joan ziran, 1. platera pizza izan eben, danak super pozik ipini ziran eta pila bat gustau jakien. 2. platera arraina izan zan eta ez eutsien horrenbesteko graziarik egin eta 3. na, jogurta.

Afaldu ostean, monitoreak jolasak egitera joan ziran, ondoren diskotekea. Beranduago, giletara joan ziran. Gauean zehar zalaparta pixka bat izan eben eta oso ondo pasau eben. Hurrengo goizean, goizeko zortzirak inguruan esnatu ziran eta gosaltzera joan ziran. Gosaltzeko esne ho-



tza, esne beroa, kolakaoa, zerealak, gailetak, mermeladea... izan ebezan.

Beranduago, Isuntza alkartera arraun egitera joan ziran eta izugarri ondo pasau eben. Talde bi egin ebezan, batzuek arraun egiten eben bitartean beste batzuk hondartzan egon ziran olgetan. Amaitzerakoan, aterpetxera itzuli ziran bazkaltzera. 1. platera makarroiak, 2. platera hanburgesea eta postrerako gelatina izan eben.

Azkenik, begiraleak agurtu eta alde batetik tristuraz eta beste alde batetik pozez autobusera igon ziran Lemoara itzultzeko.



AGENDEA

BAGILAK 3  
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

ARRATIA

Hilaren 6ra arte, Feroskana parke eolikoari alegazinoak *makatzak@gmail.com* helbidean.

ARTEA

Hilaren 16ra arte, aurkeztu daitekez lanak Arteako Jaietako Kartel Lehiaketarako udaletxean.

Bagilaren 30era arte luzatu da HAPO barria (Hiri Antolamendurako Plan Orokorra) eta dokumentazino osogarria jente-aurrean ipinteko epea. Alegazinoak aurkezteko edo konsultak egiteko aurretiko hitzordua hartu behar da 94 673 92 05 telefonora deituta.

BEDIA

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

16:30etik 19:30era, hilaren 13ra arte, sanjuanetan Playback-ean parte hartzeako eta txosnan lagunduteko izen-emotea liburutegian.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik 09:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 20:45era. Arreteak: astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

HAPO erakusketea eta herritarren buzoia urri lehenengoaren 30era arte.

Hilaren 13ra arte, 2013 eta 2020 bitartean jaiotako neska-mutilek emon daikie izena Arratia taldearen Udako Futbol Kanpuserako 94 631 57 04 edo 747 452 538 telefonoetan edo *cdarratia@cdarratia.com* helbide elektronikora idatzita. Kanpusa bagilaren 23tik 27ra izango da 09:30etik 14:00etara. Prezioa 100 euro, gosaria eta kamisetea barne.

10:00etatik 14:00etara eguaztenetan eta 15:30etik 19:30era astelehenetan izena emon daiteke Igorre Aktibo jarduera fisikorako orientazino zerbitzurako, Kultur Etxean, 617 719 973 telefonoan edo *jon.oteo@mugikon.com* helbidean.

LEMOA

19:00etan, Franck Dolosor-en *Gernika Batailoia*. *Askatasunaren ametsa* liburuauren aurkezpena Kotxepin Kultur Etxean.

Lemoako Harrobiren Udako Kanpusa bagilean. Izen-emotea zabalik. 2012tik 2019ra bitartean jaiotakoentzat. Izena 690 190 738 telefonoan (Eneko Etxebarria), *eneko.coordinador@gmail.com* helbidean edo *labur.eus/lemoakaharrobikanpusa* estekan emon behar da. Kanpusa bagilaren 23tik 27ra eta bagilaren 30etik garagarrirearen 4ra izango da. Aste bat (100 euro) hamaiketakoa eta kamisetea barne edo bi (180 euro).

08:00retatik 21:00etara, ikasgela

egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Hilaren 4ra arte, izena emon daiteke gazte udalekuetarako *labur.eus/xtbhwzt* estekan. Udalekuak Lesakan izango dira, bagilaren 30etik garagarrirearen 4ra, 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzat.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

Podologia zerbitzua hilaren 6an. Izen-emotea udaletxean.

Hilaren 10era arte, udalekuetan izena emoteko epea. Udalekuak bagilaren 23tik garagarrirearen 4ra arte izango dira 10:00etatik 13:00etara.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

Hilaren 7ra arte, 23 urte baino gtxiagoko Gorbeia Suzien 21 kilometroko lasterketarako izena emon eben Arratiako gazteek, galdetegia bete leikie hilaren 21ean, entrenamentua egiteko ibilbidean eta esperientziadun lasterkariakaz.

ZEBERIO

Liburutegia zabalik. Astelehen, eguen eta barikuetan 16:30etik 19:30era, martitzenetan 16:30etik 18:00etara eta eguaztenetan 17:00etatik 20:00etara.

Hilaren 6ra arte, izena emon daiteke gazte udalekuetarako udaletxean edo *labur.eus/zeberioudalekuak* estekan. Gazte Udalekuak Lekarozen izango dira, bagilaren 23tik 27ra, 12 eta 17 urte bitarteko gazteentzat. Plaza mugatuak dira eta lehentasuna Zeberikoek daukie.

Hilaren 6ra arte, 3 eta 6 urte eta 7 eta 11 urte bitartekoentzakoentzat udalekuak bagilaren 23tik garagarrirearen 11ra arte asteka. Izena udaletxean edo *labur.eus/*

*udalekuzeberioume* helbidean emon. Plaza mugatuak dira eta lehentasuna Zeberikoek daukie.

BAGILAK 4  
ARANTZAZU

18:00etan, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) aurrerakinaren jente-aurreko aurkezpena Kultur Gunean.

DIMA

17:00etan, Txum Pelota Txapelketea frontoi txikian.

IGORRE

Arratiako VIII. Haur Antzerki Topaketak. 17:30ean, Arteako eskoleak *Ilargia salbatu behar da* lana eta Lemoako eskoleak *Zoriontasunaren harria* Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

19:00etan, Antonio Aretxabalaren berbaldia, *Kritika egungo eredu berriztagarriari eta alternatibak* Hogarrean.

BAGILAK 5  
AREATZA

19:00etan, batzarra udaletxean. Gaia: Areatzako kontsultategian Osakidetzak egindako aldaketak.

BEDIA

18:00etan, etxeko faktura elektrikoa ulertzeko tailerra liburutegian.

IGORRE

18:30ean, Bizkaiko Caritasen berbaldia *Zurrumurruak geldiarazi bizikidetza sustatzeko* Kultur Etxean.

LEMOA

18:30ean, Jon Mentxakatorreren eskutik berbaldia *Mito-ipuinak: zelan aitu, zelan zaindu* Kotxepin Kultur Etxean.

BAGILAK 6  
ARTEA

19:00etan, Arratiako Musika Eskolarean eskutik *Helduen kontzertua* Herriko Bentan.

BEDIA

Eleizalde Bediako Jubilatu eta Pentsionisten alkarteak eraturako urtekerea Medina de Pomarrera.

DIMA

25 Urtean Kantuen. Luis Prieto bertso-bazkariaren omenezko jaialdia. 18:00etan, herri kirolak Bizkaiko Txinga Erute Txapelketea; 19:00etan, agurra; 19:15ean, eskolako umeak kantuan; 19:20an, JtKantuz; 19:30ean, J Laukoitza; 19:40an, bertso-saioa, bertsolariak: Unai Iturriaga eta Jon Maia; 20:40an, kopautxo. Plazan.

IGORRE

Herriko jaiak. 19:00etan, jaien hasikerako txupina. (Ikusi egitaraua 8. orridaldean).

UBIDE

10:00etan, podologo zerbitzua.

BAGILAK 7  
ARTEA

12:30ean, Irakurleen Txokoan, Goiatz Labandibarrek Zoo ipuin bildumea aurkeztuko dau Kultur Etxean.

IGORRE

02:30ean eta 05:00etan, etxera bueltetako autobusa. Autobus gerezalekuan.

LEMOA

EuskalJaia. 09:00etan, ibilbide mitologikoa Lemoatxetik Gaztetxe ondoko parketik urtenda; 13:00etan, poteo musikatua Arraibitik; 15:00etan, herri bazkaria Arraibin; 18:00etan, poteo musikatua Merhezi taldeagaz.

BAGILAK 8  
ARTEA

19:00etan, Jai Batzordea Kultur Etxean.

ZEANURI

Zeanuriko Aire Zabaleko VII. Margolan Lehiaketa. 09:00etatik 09:30ak arte, euskarriak identifikau eta zigitatu; 14:00etatik 14:30era arte, lanak aurkeztu; 15:00etan sari banaketea Kultur Etxean. 4 sari: Lehenengo saria, 800 euro; bigarren saria, 500 euro; hirugarren saria, 300 euro eta publikoaren saria, 300 euro.

BAGILAK 9  
ARTEA

19:00etan, udaleku irekietako batzarra Kultur Etxean.

IGORRE

Arratiako VIII. Haur Antzerki Topaketak. 17:30ean, Igorreko eskoleak *Makilakixki*; Lemoako eskoleak *Danbor magikoa* eta Igorreko eskoleak *Martin Txiki* Lasarte Aretoan.

BAGILAK 10  
ARTEA

09:00etan, Mikel Deuna jubiladuen alkarteak antolatuta, Doneztebe-Albaola txangoa. Autobus gerezalekuan.

BAGILAK 11  
DIMA

17:00etan, Txum Pelota Txapelketea frontoi txikian.

LEMOA

18:30ean, Alabazan konpainiako Bego Gomezen *Sagu txiki, sagu maite* 2 eta 4 urte bitarteko umeentzako ipuin kontaketea Kotxepin Kultur Etxean.

BAGILAK 12  
ARTEA

18:30ean, menpekotasunaren gaineko

berbaldia Kultur Etxean.

BEDIA

18:00etan, Eleizalde Bediako Jubilatu eta Pentsionisten alkarteak antolatuta, *Depresioa, gainditu beharreko erronka* berbaldia Liburutegian.

IGORRE

Arratiako lehenengo transmaribollo eguna. 12:00etan, Iñi Etxezarretaren berbaldia *Desira, kategoria eta erabakiez*; 13:30ean, Pomada Bandaren poesia emonaldia; 15:00etan, bazkaria: txartelak, Atxeta, Axlór, Axular eta Haginan salgai eta 17:00etan, Boloma, Zumba Kuir, Txosnagunean.

BAGILAK 13  
DIMA

17:00etan, Txum Pelota Txapelketea frontoi txikian.

18:00etan, Aritxoi magoa. Abaroa Aretoan.

IGORRE

17:00ak inguruan, Panta Rhei konpainiaren *Naturaren ispilua* ziklo-kroseko landetan.

ZEBERIO

Ermitabarriko jaiak. 12:30ean, jai hasikerako txupina; 13:00etan, mezea ermitan; 13:30ean, barauskarria; 17:30ean, pelota partidua; 21:00etan, sardina jana; 21:30ean, Bilbosonidotik DJ Alex + Animazioa Lainekin.

BAGILAK 14  
IGORRE

02:30ean eta 05:00etan, etxera bueltetako autobusa. Autobus gerezalekuan.

LEMOA

II. Harrobi Eguna. 09:15ean, kadeteak txapeldunen liga; 11:15ean, futbol eskolea; 12:00etan, alebinak eta benjaminak; 12:30ean, infantilak, ostean Harrobi familia argazkia eta Harrobi jokalaria saria; 13:30ean, Patxanga Expres eta kopaua Merhezi taldeak girotuta. Arlonagusian.

ZEBERIO

Ermitabarriko jaiak. 12:00etan, puzgarriak eta umeentzako tailerrak; 15:00etan, herri bazkaria. Paellea: txartelak herriko tabernetan salgai hilaren 10era arte; 18:00etan, Txapel Jaurtiketea eta Igel Txapelketea; 18:30ean, bola-jokoa; 19:30ean, herri meriendea; 20:30ean, Bilbosonidotik DJ Alex + Animazioa Lainekin; 22:30ean, Kaiña-Bi TrikiFarra; 01:00etan, txokolatea.

BAGILAK 15  
BEDIA

11:00etatik 14:30era arte, Merkataritza, Artisautza eta Elikadura Azokea plazan.

Garagardao eta txakolin dastaketea.

ZEBERIO

Ermitabarriko jaiak. 12:00etan, helduen pato lasterketea; 12:15ean, umeen pato lasterketea; 13:00etan, euskal jantzak Gazte Barri eta Gangorri jantza taldeakaz; 14:00etan, herri kirolak. Kirolariak: Karmele Gisasola, Uxue Ansorregi eta Irati Astondoa; 17:30ean, Mus Txapelketea.

BAGILAK 17  
ARTEA

16:00etatik 20:30era, Arratiako Musika Eskolakoen piano maratonia plazan.



Umeentzako musikea eta jolasak Lemoako Kotxepin Kultur Etxean

Bagilaren 6an, barikua, Lankuren eskutik, 3 eta 12 urte bitarteko umeentzako musikea eta jolasak batzean dituan *Txuri-beltza da ta...* saio parte-hartzailea egongo da Lemoako Kotxepin Kultur Etxean, 18:30ean.

Dibertigarria bezain sakona dala edukietan dinoe saioaren aurkezpenean. "Zuria edo baltza? Zelan ikusten dozu bizitza? Zer da hobea? Zuria? Baltza? Edo bietatik egin behar dozula sentiduten dozu? Zuri-baltza? Saioaren dinamika osoa parte-hartzailearen motibazinoagaz lotuta doa. Autoestimua indartua aterako dabe umeek. Taldelana eta bakarkakoa ez da faltauko. Ezta barre egiteko tarte be!".



# KOMIKI A

25 urte komikie iten hasi zinela...  
zer aldatu da urte honitan?

Ni! lurrezko bide  
bat baino  
zaharragoa nazela

Eta ia ni baño  
hobea dala  
komikiek iten

Ni! lurrezko bide  
bat baino  
zaharragoa nazela.

## IRAGARKI LABURRAK

# Begitu-lagunen txokoa

**beginu**

## Zenbaki honetako saridunak:

**1** Areatzako Udalak emondako *Dolu bat eta dolu bi* liburuarren ale bana.

**2** Lemoako Kotxepin  
Kultur Etxeak  
emondako bina sarrera  
*Txuri-beltza da ta...*  
saiorako.

Errose Aurrekoetxea (Igorre)  
Martin Sagarna (Areatza)

Jon Intxaurbe (Zeanuri)  
Alize Gurtubai (Igorre)

Zerturen  
argitalpenak  
jasoko dozuz,  
zozketetan  
sartuko zara.

BEGITUk 23  
urte eta  
ehundaka  
lagun.

**94 673 90 13/649 979 115 | [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus) | [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)**

**Gure**  
ikastetxeak

**Euskalduna**  
kalidadezkoa

**herrikoia**

|                                                         |                                                             |
|---------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------|
| <b>JB Eguzkiza Meabe HI</b><br>Tel.: 94 631 32 28 Lemoa | <b>Ikastola Arratia HI</b><br>Tel.: 94 428 78 15 Artea      |
| <b>Ugarana HI</b><br>Tel.: 94 631 55 32 Dima            | <b>Arratia BHI</b><br>Tel.: 94 428 79 34 Igorre             |
| <b>Zubialde HI</b><br>Tel.: 94 648 06 82 Zeberio        | <b>Areatzako Herri Eskola</b><br>Tel.: 94 673 90 93 Areatza |
| <b>Zeanuri HI</b><br>Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri         | <b>I. Zubizarreta HLHI</b><br>Tel.: 94 673 60 22 Igorre     |

2 urtatu 19ra

**BIXER**  
**TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel: 94 631 73 65 - VILLARDO

**Jose Luis Corbacho**  
  
**pintura lanak**  
 Sabino Arana, 3. 3a  
 Iurre 48140 Birkain  
 ☎ 94-673-70-87  
 ☎ 609-79-40-54

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA

ROSANA eta ROBER  
SABINO ARIANA 38  
IGORRE  
TEL. 94 631 92 00







# IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN

Informazinoa: **649 979 115**  
eta [inigoirua@begitu.eus](mailto:inigoirua@begitu.eus)



Igorreko Udalak jai  
zoriontsuak opa deutsuez!!